

Asier Cuevas

Arrasate-Oñati
lasterketan garaile

KIROLA, 16-17



UDAk gertu dauka mailari eustea

Aloña Mendik puntu bat lortuta
lortu du salbu egotea

KIROLA, 14

Joan Simon

Espaloian izan
zen egubakoitzean

KULTURA, 25



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko maiatzaren 9a • 2. urtea • 56. zenbakia • 0,90 euro

AHTren kontrako hurrengo ekintza Ingurumenaren Egunaren bezperan

Zapatuan egun osoko jardunaldia egin zuten Angiozarren AHTren kontrari direnek

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta egun osoko jardunaldia egin zuten zapatuan Angiozarren. 40tik gora lagun elkartu ziren han, Gipuzkoa osotik, Bizkaitik eta Arabatik etorritakoak; gehienak bestelako taldeen izenean. Aurrera begira AHTren kontrajarraitu beharreko ekintza bideak adostea zuen helburu batzarrek, eta orain arte egindakoa

baloratzea. Antolakuntza gustura geratu zen izandako erantzunarekin, bai eta batzarrean sortu zen eztabaidarekin ere. Hortaz, ekainaren 4an, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren bezperan, AHTren kontrako informazio kanpaina eguna izango da. "Mezu zuzen eta garbiarekin aterako gara kalera", adierazi digute Elkarlanetik. **2-3**

PARTE-HARTZE HANDIA
40 lagunetik gora animatu zen AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako jardunaldietara

EGUN OSOKO BATZARRA
Goizean taldean eztabaidatu zuten eta arratsaldean, berriz, talde txikiagotan banatu ziren

AURRERA BEGIRA
Ekainaren 4an izango da lehenengo ekintza, baina ekintzaz beteriko zerrenda prestatu zuten zapatuan

ELKARLANA ZABALDU
AHT Gelditu! Elkarlanak talde gehiagorengana iristeko lan egingo du elkarlana zabaltzeko asmoz

Elgetarako bidea gaur itxiko dute

Ibilgailu handiendako itxiko dute bihurguneak egokitze lanengatik. Autobusei ere eragingo dienez, zerbitzu berezia jarriko dute Elgeta Kanpanzarrekin lotzeko. **9**

Elkartasun gaiak landu ditu Oñatiko topaketan elizbarrutiak **4**

Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatibekin hitzarmena sinatuko du gaur, MUK **9**



LARRAITZ ZEBERIO

KILOMETROAK 05 TXIKIA JAIK JENDE UGARI BILDU ZUEN ARRASATEN

Arrasateko Arizmendi Ikastolak inoiz baino festa handiagoa egin du aurten Ikastolaren Eguna dela eta. Ekitaldiz beteriko lau bat kilometroko zirkuitua ahalbidetu zuten zapatu goizean hirigunean bertan. "Oso pozik gaude dena ondo irten zelako" esan digu antolakuntza taldeko Leire Aranak. Festa saiakera txiki bat ere izan da Kilometroei begira. "Argi dago urriaren 2ra begira jende gehiago beharko dugula muntaia lanak egiteko". **6**

GEUREAN

- Datoren zapatuan hasiko dira Arrasaten, umeen danborradarako entseguak | 5
- Elgetan, 41 lagun batu ziren Asentzio Eguneko ospakizun bazkarian | 5



Maddi Arzamendi
bergararrarekin
Grupo Martin
Berasateguiz
jardun dugu | 8

ABIADURA HANDIKO TRENAREN KONTRAKO JARDUNALDIA

AHT GELDITU! ELKARLANA | AHT-REN KONTRA AURRERA BEGIRAKO EKINTZAK ERABAKITZEKO BATZARTU ZIREN ZAPATUAN ANGIOZARREN

AHTren kontra kalera aterako dira Ingurumenaren Egunean

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako taldeetako ordezkariak batu ziren zapatuan Angiozarren egindako AHTren inguruko jardunaldian

Marijo Deogracias

Eguna labur geratu zitzaiea aitortu ziguten AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek. Hala ere, Angiozarren zapatuan egindako jardunaldia oso positiboki baloratu zuten eta aurrera begirako ekintza zerrenda zehaztu dutela adierazi zuten. “Egutegia ez dugu zehaztu oraindik, baina herrietako taldeetan erabakitze konpromisoa hartu dugu eta AHTren kontra lanean jarraitzeko bideak zeintzuk izango diren adostu dugu”, adierazi zigun Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideak.

INGURUMENAREN EGUNEAN

Hasteko, Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren bezperan, ekainaren 4an, informazio mahaiak jartzea adostu dute jardunaldira batutakoek. “Mezu simple eta erraz bat aterako dugu. Jendeak erraz identifika dezala nahi dugu eta gure jarrera ondo uler dezatela. Hortik aurrerakoak laster eman-go ditugu jakitera”.

Azaldu zigutenez, zerrendatutako ekintza asko herrietan eta taldeetan aztertzeok dira, “mugimenduak ekintza horiek aurrera eramateko duen ahalmena zein den baloratu behar delako. Horren arabera, urte guztian zehar ekintzak prestatuko ditugu gaia kale-



Angiozarren elkartzea erabaki zuten AHTren kontrako hainbat taldeetako kideek zapatuan.

AINZANE AGIRRE

an lantzeko eta eragin zuzena jasan-go dutenak bakarrik ez mobilizatzeko”. Alderdi hori ere jorratu nahi dute AHT Gelditu! Elkarlana taldekoek. Batzarrerako prestatutako txostenak jasotzen duenez, Elkarlanen taldeak beste hainbat

ekimenetan ari diren taldeekin aritu nahi du. “Superportuaren inguruan ari direnekin, harrobiekin inguruan lan egiten dutenekin... Denen artean zer Euskal Herri nahi dugun eztabaidatu beharra dago”, zioten antolatzaileek.

BERROGEI BAT LAGUN


Zapatuan goiza eta arratsaldea eman zituzten AHT Gelditu! Elkarlana taldeak egindako batzarrera batutako ia berrogei lagunek. Bi txandako topaketa egin zuten. Goizean bertaratu-

• ZEIN DA AHT-REN KONTRA EGINDAKO LANA? IKUSITA ZER EGIN BEHARKO LITZATEKO AURRERANTZEAN?



FERNANDO SALEGI |
ONDARROAKO EGUZKI TALDEA

“AHT ez da bakarrik EAEko arazo; Euskal Herri osoari eragiten dion arazoa da. Guk, esaterako, Ondarroan eta Lea Artibain AHTren kontrako mezua zabalitzen jarraituko dugu; kontzientziario kanpaina egingo dugu”.




JESU MARI GARITANO |
BERGARA AURRERA

“Ni neu entzutera etorri naiz jardunaldietara. Aldi berri baten gaudela argi geratu da eta denon artean adostu behar dugu zer egin, jarri nahi diguten munstro hori geratzeko. Jendearekin lan egin behar dugu”.



ALAZNE GARMENDIA |
EHNE, OIARTZUN

“Herritarrei informazioa zabalitzen jarraitu behar dugu, beste inork ez duelako kontzientziario lan hori egiten. Kaltetuak eta ez kaltetuak, guztiok, ados jarri behar dugu, azken batean, denek kaltetzen gaituelako”.



'BIKILA' |
ZUTIK

“Jaurlaritzaren proiektu zoro horri erantzuteko sasoia da, Jaurlaritza tematu egin baita horretarako dirurik eta eskumenik izan gabe. Arrazoia erabiliz erantzun behar diogu. Batzarra giro oso onean egin dugu”.



TXUTXIN |
GASTEIZKO AHT TALDEA

“Gasteizen AHTren kontrako taldea sortu berri dugu. Izenik ere oraindik ez daukagu, baina AHT egiteko lanak geldiarazi behar ditugula argi geratu da eta guk gure aldetik, ahal duguna egingo dugu horrela izan dadin”.

ABIADURA HANDIKO TRENAREN KONTRAKO JARDUNALDIA

tako talde eta kide bakoitzak AHTren kontra orain arte egindako lanaren aurrean duen iritzia plazaratzeko aukera izan zuen. Arratsaldean, berriz, goizekotik ateratako ondorioekin aurrera begirako ekintzak zehaztu zituzten. "Arratsaldeko saioa ere oso positiboa izan da. Talde txikiagoetan banatuta jendeak parte-hartze handiagoa izan du eta ekarpen asko egon dira", azaldu ziguten antolatzailleek.

Landutako argumentuen artean AHT proiektu elitista dela izan zen nagusia. "Proiektu klasista da eta gutxi batzuek bakarrik erabiliko dutela argi geratu da eztabaidan. Gainera ez du gizartearen garraio arazoa konponduko, ez baitu merkantzien garraioa arinduko errepideetan. Eztabaidan parte hartu dutenetako batzuek hegazkinen erabilerarekin parekatu dute AHTk izango lukeen erabilera".

HIRU LURRALDEETATIK

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako jendea elkartu zen Angiozarren zapatuan. Antolatzailleek azaldu zuten, "Oihartzun zabala izan-

go du gaur eztabaidatutakoak. Hiru hiriburuetakoa jendea etorri da eta asko eta asko AHTren ibilbidetik kanpo geratzen diren eskualdeetatik etorri dira. Hori poztekoa da, eztabaida zabalitzen duelako horrek. Horri esker, orain arte AHTren kontra talderik egon ez den lekuean ere gaiaz jardungo dute orain".

Asmo hori gogoan antolatuta zuten, hain zuzen ere, Elkarlana taldekoek Angiozarren batza-


Elkarlana taldeak beste hainbat ekimenetan ari diren taldeekin aritu nahi du

"AHT proiektu klasista da eta gutxi batzuek bakarrik erabiliko dute"

rra. Orain arte egindako lana aztertu eta AHTren kontrako mobilizazioa gehiago sozializatzeko bideak jorratzeko.

EZTABAIDA IREKIA

Goizean 11etan ekin zioten eztabaidari batzarrera elkartutako kideek. Luze jo zuen lehenengo zatiak; batez ere jende askok nahi izan zuelako bere ikuspegia azaldu. "Eztabaida polita izan da" zioten bazkaltzera geratu zirenek; "argumentu oso interesgarriak plazaratu dira eta oso aberasgarria izan da", adierazi ziguten. Hortaz, ordu batean barik ordu bietan egin zuten bazkaltzeko etena. Arratsaldeko txandara jende gutxiago geratu zen, baina hala ere, aurrez jarritako asmoak bete zituzten: aurrera begirako ekintza egutegia zehaztu eta lehentasunak ezarri. "Egunak askorako eman du, labur geratu arren. Eztabaida zabala egin ez denez, gaia aztertzeko batzen garenetan iritzi eta argumentu asko plazaratzen ditu jendeak eta horrek on egin digu Angiozarren antolatutako batzarrean ere", esan ziguten Elkarlana taldekoek.



AHT Gelditu! Elkarlana 2000n hasi zen AHTren kontra lanean

Hainbat erakunde batu ziren orain dela bost urte AHTren kontra, eta harrezkero ekintza eta mobilizazio asko egin dituzte Euskal Herri osoan. AHTaren aurkako asanbladako alderdiek, Udalek, tokian tokiko kaltetu taldeek, talde ekologistek, sindikatuek eta beste hainbat taldek eratu zuten. "Borroka mantsoa da, baina indarra hartzen ari dela" diote Elkarlana taldekoek egindako balorazio txostenean eta "horren lekuko dira herrietan sortu diren elkarlanerako talde berriak eta mobilizazioetan parte hartu duen jende kopurua". Hala ere, hutsuneak badirela onartzen dute Elkarlanekoek. "AHT gelditzeko herri dinamika oinarria izanik, ez dugu

lortu iraunkorra izatea", diote; eta Iparraldeko taldeekin eta Nafarroako korridorearen oposizio taldeekin elkarlana sendotu beharra ere igarri dute. "Nafarroako gobernuaren adierazpenek, Euskal Yarekin Ordizian lotura egiteko asmoa azalduz eztabaida piztu dute, eta hau guztia ikusita administrazioek presa dutela iruditzen zaigu".

Elkarlana taldekoek adierazten dutenez, "denbora aurrera joan ahala, gobernuak badakite gatazka areagotu daitekeela egiten dugun lanaren arabera eta, baita ere Europako finantzaketa lortzeko aukerak murrizten zaizkiela". Hortaz, "proiektua gelditzeko unea" dela diote Elkarlanekoek.



Goizez eta arratsaldez egin zuten batzarra Angiozarren Elkarlana taldeak deituta.



DANEL ETXEBERRIA | ITSASONDOKO UDALA

"Beste aldi baten gaudela pentsatuz etorri gara, Jaurlearitzak lanei ekiteko beldur ginela, alegia. Baina alderdi horri hainbeste garrantzi eman barik jendea informatu behar dugu eta Elkarlana alde gehiagori zabaldu".



PATXI EGILAZ | AHT-REN KONTRAKO ASANBLADA

"Argi dago Jaurlearitzan jarraitu egiten duela inposatu nahiak (1996an esan zuten, lehenengoz, lanak hasiko zituztela). Baina jauzi bat emateko ordua da, inposaketa agerian lagatzeko eta eztabaida bultzatzeko".



CARLOS GUINEA | LAB SINDIKATUKO KIDEA

"Hausnarketa aldi batean gaude. Gizartearen kontzientzian eragin behar dugu eta erakutsi, egin nahi duguten tren hori ez datorrela bat gure gizarteak behar duen tren ereduarekin. Gobernuak egingo dutenari adi egin behar dugu".



JOSEBA FERNANDEZ | BIZIRIK TALDEKO KIDEA

"AHTri ikuspegi alderdikoia eman zaio. Tren konbentzionala nahi dugu, konbentzionala eta modernoa; errepide bidezko gehiegizko merkantzia-garraioari aurre egingo diona. AHT ez dator bat gure inguruarekin".



MIREN ABURUZA | ADUNAKO UDALA

"Lan asko dago egiteko oraindik. Jendearengana iristea da orain garrantzitsua; herrietan lan egin behar dugu, baina ez bakarrik AHTk zuzenean eragiten dietenekin, baizik eta gizarte osoarekin. Ez dugu etsi behar".

ELKARTASUNA OÑATIN | GOIZEAN HITZALDIEKIN ETA ARRATSALDEAN EKUADORREKO IKUSKIZUNAREKIN BETE ZUTEN EGUNA

Elkartasun proiektuen berri eman zioten elkarri zapatuan

Gipuzkoako elizbarrutiko misioetako ordezkariak antolatu zuen topaketa Oñatin

Arratsaldean Ekuadorreko folklore taldeak saioa egin zuen musika eta poesia nahastuz

Marijo Deogracias

Gipuzkoako Elizbarrutiko Elkartasun taldeek jardunaldia egin zuten Oñatin joan zen zapatuan. Asmoa elkar ezagutzea zen. Horretarako bakoitzak bere esperientziaren berri eman zuen, bai eta Elizbarrutitik bultzatzen diren ekimenen berri eman ere.

Goizeko lehenengo orduan, agurraren ostean, otoitzerako tarte hartu zuten Oñatiko kultura etxera batutakoek. Ostean, eguneko gonbidatuaren berbaldea entzuteko aukera izan zuten. Paul Nicholson sindikalista eta nekazari mugimenduen kidea izan zuten han. Elikatzeko eskubidearen gainean aritu zen ordu-bete pasatxoko berbaldean. Nicholsonek zera azpimarratu zuen "guztiona da elikagaiak produzitzeko eskubidea. Indigenen

proposamenetik sortu da elikagaien subiranotasunaren defentsa eta herri pobreenetako gobernuetan aintzat hartzen ari dira".

Jakin-mina sortu zuen Nicholsonen berbaldiak eta galderen txandetan jende askok egin nahi izan zituen bereak. Guztiak erantzun zituen sindikalista beterranoak eta eguerdian kafea hartu eta bidezko merkataritza denda hurbildu ziren guztiak.

Elkartasun topaketara 80 bat lagun elkartu ziren eta hitzaldiaren ostean Elizbarrutiko elkartasun taldeek osatzen duten plataformaren gainean aritu ziren.

ELIZBARRUTIKO TALDEAK

Elizbarrutiko Misioetako ordezkariak deitu zuen batzarra Oñatin. Orain dela bost urte ekin zioten horrelako jardunaldiak egiteari eta Oñatira lehenengoz etorri



Kafea eta gailetak hartzeko atsedenaldia egin zuten eguerdian.

dira "Debagoienean ere horrelako taldeei bultzadaxoa emateko asmoz", adierazi zigun Leire Atxega ordezkariak. Berak

azaldu zigunez, "Bergaran ere ari dira horrelako talde bat sortzen eta Oñatin ere badago parrokiako misioetako taldea". Elizbarrutiko

misioetako ordezkariak, Caritas, Gazte idazkaritza, Gizarte idazkaritza eta Esku Batuak elkar-
teak ere aritzen dira.

• HAINBAT EKINTZA EGIN ZITUZTEN ELKARTASUN TALDEETAKO KIDEEK



PAUL NICHOLSON. Elikagaien subiranotasunaz aritu zen EHNEko kidea Oñatin. Produziorako eskubidea dugula eta horregatik herri bakoitzak produzitu nahi dituen elikagaiak erabakitze ahalmena izan behar duela azpimarratu zuen. Via Campesina taldearen egitekoaz ere jardun zuen.



EKUADOR EZAGUTUZ. Oñatiko Errementari plazan aritu ziren Ekuador taldekoak bazkalostean. Andeatako musika eta dantza eskaini zuten, herrialde hartako folkloreak erakusgarri. Ordu eta erdiko saioa izan zen eta topaketara batutakoek ondo baino hobeto pasatu zuten dantzan eta abesten.

• ZER AZALDU DUZUE JARDUNALDIETAN?



LEIRE ATXEGA | MISIOETAKO ORDEZKARITZAKO KIDEA

"Elizbarrutiko elkartasun taldeen artean koordinazioa lantzea nahi dugu. Debagoienean ere horrelako taldeak bultzatzea nahi genuke, eta Oñatira etorri izanak asmo hori zuen".



IÑIGO LASAGABASTER | GAZTEEN IDAZKARITZAKO KIDEA

"Gazteei elizbarrutiaren politika zabaltzea izaten da gure eginkizuna. Gazteen artean transmisio bideak jorratzea dugu helburu eta horixe azaltzera etorri gara Oñatira".



AMAIA UGARTE | OÑATIKO PARROKIAKO MISIO TALDEKO KIDEA

"Hilero batzartzen gara. Iaz Dominikar Errepublikan etxeko egiteko proiektua landu genuen. Aurten Argentinako Keta indiarren herrixkan ur bonba jartzeko proiektuan laguntzen ari gara".



AINHOA ARBELAIZ

Pagobedeinkatua egin zuten meza Irukurutzeta Egunean.

Osintxuarrak Irukurutzeta Egunaren zaindari atzo

Goizean jende gehiago igo zen arren, osintxuarrak izan ziren Irukurutzetan bazkaltzen geratu ziren bakarrak

M.B.

Irukurutzeta Eguna ospatu zuten atzo, domeka, hainbat lagunek. Bergararrak izan ziren, batez ere, Irukurutzetara joan zirenak, eta horien artean ausartenak Osintxu auzokoak, zalantza izpirik gabe.

Goizean goizetik igo eta urtero bezala Pagobedeinkatua deritzon gunean meza entzun zuten. Baita horren ostean, salda eta txorizoa hartu ere. Horrekin batera,

Egileor bertsolariak lau bertso ere bota zituen.

Bertaratutakoen esanetan, penarik handiena eguraldia izan

**Pago bedekatu
meza izan ondoren,
bertsoak entzun
eta hamarretakoa
jan zuten**

zen, goiz parte horretan, behintzat: "lanbro itxi-itxia zegoen eta inguruko paisaia ez ikusteaz gain, trikitilarietara ere hots egin genien ez igotzeko esaten".

OSINTXUARREK GOIAN BAZKALDU ZUTEN

Hamarretakoaren ostean askok Pagobedeinkatutik behera egin zuten arren, Osintxuko koadrila handi batek, -30 bat lagunek-Irukurutzetaraino igo eta han bazkaltzea erabaki zuten. Ondo prestatuta joan ziren gainera, etxetik janaria eramanda. Egunak aurrera egin ahala, nabarmen hobera egin zuen eguraldiak eta 17:00ak aldera arte han izan ziren.

• UMEEN DANBORRADA, ARRASATEN

ZAPATUAN HASIKO DIRA ENTSEATZEN EGUN HANDIRAKO

Arrasaten San Juanetan umeek egiten duten danborradarako entseguak zapatuan hastekoak baziren ere, antolatzaileek aste-bete atzeratu dituzte. Izan ere, zapatuan kilometroen inguruko festa izan zen Arrasaten eta biek bat ez egitearren hartu dute erabaki hori SUDC elkarteak antolatzaileek. Lehen entsegua, beraz, datorren zapatuan izango da, San Viator Txiki ikastetxean 18:00etatik 20:00etara. Entseguok danborrada egunera arte iraungo dute. Bestalde, interesa duten ume guztiek danborradan parte hartzeko aukera daukate oraindik ere. SUDCeko egoitzan eman beharko dute izena.



ARTXIBOA

San Migel txikiak maiatzeko jaiari hasiera eman diete asteburuan

Begarako San Martinen ostean, Errekaldekoak, Araotzekoak eta Corpusak ospatuko dituzte

M.D.

Kalezarreko auzotarrek San Migel txiki jaiak ospatu zituzten asteburuan. Umeek ederto pasatu zuten egubakoitzean buruhandiei ihesi eta urtero legez, sagardoak eta gazta janak arrakasta izan zuten auzotarren artean. Debalde banatze-ko ohitura dago merienda goxoa eta jende asko inguratu zen Bujeroneko arkupeetara.

TAULA BARIK ERE JAI BIKAINAK

San Anton plazan jartzen dute taula San Migel txikietan. Aurtan, osterara, lanak direla eta lekuz aldatu zuten. Horrek tabernatxoa jartzera eraman ditu auzotarrak, baina azkene-

an, taula bariku gaueko kontzerturako bakarrik erabili zuten; zapatu gauean San Anton plazan egin zuten dantzaldia eta disko jartzailea taula barik aritu zen. Hala ere, itzelezko giroa jarri zuen DJak; "hurrengo urtean berriz ekartzeko modukoa", aitortu ziguten antolakuntzakoek.

Zapatuan, umeen jolasak nahi baino gutxiago izan ziren arren, marrazki lehiaketan 40 bat ume parte hartu zuten. Domekan, auzoko hildakoen omenezko meza eta auzoko emakumeen ohiko bazkaria egin zituzten.

Maiatzaren 20an Errekaldeko eta Araotzeko jaiak hasiko dira eta maiatzaren 27an, berriz, Corpusak.



AINZANE AGIRRE

Sagardo eta txorizo pintxo jatea egin zuten Bujeroneko arkupeetan.



AINZANE AGIRRE

Erraldoi ezagunak atera ziren kalera jaien hasieran.

KMK'05 TXIKIA JAIA | PROBA URRIAREN 2RA BEGIRA

Festa handia iritsi aurretik aperitiboa

Arrasateko erdigunean ekitaldiz beteriko lau gune egon ziren lau bat kilometroko zirkuituaren bueltan

Arizmendiko arduradunek balorazio positiboa egiten dute, parte-hartze handiko festa polita izan zelako

Larraitz Zeberio

Eguraldi ona, parte-hartze bikaina eta giro aparta izan ziren nagusi zapatuan Arizmendi ikastolak Arrasaten ospatutako Ikastolaren Egunean.

Aurtengoan inoiz baino festa handiagoa antolatu dute Arizmendikoek. Kilometroak 05 antolatzen duen ikastolak KMK'05 Txikia Jaia antolatu zuen Arrasaten eta hiriko erdigunean lau bat kilometroko zirkuitua ahalbidetu zuten. Guneak ere lau izan ziren -Monterron, Plaza, Sebero Altube eta Ferixalekua- eta Kilometroetan gertatzen den bezalaxe guneetan batu ziren eguneko ikuskizun eta ekitaldi gehienak.

Egun osoko jaia izan zen: txupinazoa, jolasak, dantzak, bazkaria, eta amaierako rock kontzertua eta guzti. "Oso pozik gaude dena ondo atera zelako. Ekitaldian jende asko ibili zen eta herri bazkarian 150 lagun elkartu ginen", esan digu Arizmendi ikastolako

"Konturatu gara muntaia lanetarako jende asko beharko dugula. Lana da"

Leire Aranak. "Ikusi dugu, hori bai, muntaia lana oso gogorra dela. Jendea prest agertzen da txosnetan lan egiteko baina muntaia beste kontu bat da".

Lau bat kilometroko zirkuituan ere jende gutxi ibili zela uste dute arduradunek. "Guneetan jende asko bildu zen baina zirkuitua bera oso pertsona gutxi egin zuen. Jendeak bere ohiturak ditu eta betiko kaleak aukeratu zituen leku batetik bestera joateko. Zirkuitua ez zen zirkuitu izan".

TXUPINAZOA FERIXALEKUAN

Goizeko 11:00etan eman zitzaion hasiera KMK'05 Txikia Jaia. Ferixalekutik botatuko txupinazoa herri osoan entzun zen eta lau bat kilometroko zirkuitua inauguratuta gelditu zen.

Gune berean, eskulan taillerak, yumpinga eta grafitiak, teknologia zein argazki erakusketa eta tortilla lehiaketa burutu ziren. Bailarako 8 artisauk jarritako postuak ikusteko aukera ere izan zen bertan. Txosnan, olagarroa, lakoia, Santiago tarta, albariñoa eta ribeiroa zeuden. Noski, Galiziako lagunek eskainitakoak. Nafarroa Oinez-eko arropa ere salgai zegoen bertan.

Seber Altube haur txikien paradisia izan zen zapatuan. Lau gaztelu puzgarri egon ziren ber-



LARRAITZ ZEBERIO

Salmenta asko egin ziren zapatuan Arrasaten. Kilometroetako arropa ugari.

Jaia datutan

- **4 GUNE ZIRKUITUAN**
Herriko plaza, Seber Altube, Ferixalekua eta Monterron.
- **150 LAGUN BAZKARIAN**
San Viator txikin egin zen bazkaria. Oso giro onean.
- **200 LAGUNTZAILE**
Irakasle, ikasle, guraso eta lagunak. Lan fina egin zuten.
- **4 MUSIKA TALDE**
Scan, The Ruders, Pico y Pala eta Mala Hierba aritu ziren.

tan euren gozamenerako. Helduendako, berriz, Andaluziako lagunek zabalduetako txosna, txipiroi frijituak, urdaiazpiko razioak eta fino txikitoekin.

ERDIGUNEAN JENDE UHOLDEA

Bertsolariak, dantzak eta Argitxo iratxoaren urtebetetze festa egin ziren Arrasateko plazan. Extremadurako lagunek laster amaitu zituzten txosnara eramandako pintxo eta edari guztiak. Araba Euskaraz-eko arropa ere bikain saldu zen. Pailazo-

ak ikusi edo arku-tiroan trebatu nahi izan zutenek Monterrone-ra jo zuten.

BAZKARIAN 150 LAGUN

San Viator txikin egin zen bazkaria. Ondotik ikastolako ikasleek *Unseres ist eures* izeneko antzezlan eskaini zuten. Bikain atera zitzairen.

Festa handi guztiek bezala, Arrasateko kontzertua ere izan zuen. Ikastolako ikasleak aritu ziren gaztetxean. Gazte asko ibili zen atzera eta aurrera kontzertua entzuten.

• EGUN OSOKO FESTAK UTZITAKO HAINBAT IRUDI



TORTILLA LEHIAKETA. Eguerdian burutu zen Ferixalekuan tortilla lehiaketa. Dotore aritu ziren parte-hartzaile gazte guztiak eta amaitutakoan ez zen tortilla arrastorik gelditu, dena jan zen eta. Argazki lehiaketa eta futbito txapelketa ere egin ziren Ikastolaren Egunean.



DANTZAK. Ikastolako ikasleek dantza ugari egin zuten zapatuan. Ferixalekuan zein herriko plazan hainbat dantza saio ikusteko aukera izan zen.



ROCK KONZERTUA. Festa handi guztietan bezala Arizmendi Ikastolaren Egunari amaiera emateko kontzertua egin zen gaztetxean. Ikastolako ikasleen kontzertua izan zen. Argazkian Scan taldea. Gaztetxean ikasle eta irakasle ugari bildu zen.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Elgetako gaztetxeak antolatzen du Asentzio Eguna. Badira hamar urte gazteek festa berreskuratu zutenetik.

Elgetarrendako oso berezia den Asentzio Eguna giro bikainean ospatu zen atzo

Meza osteko umeen ikuskizunekin asko gozatu zuen jendeak. Elgetako eskola txikiko artistak bikain aritu ziren

Larraitz Zeberio

Txalapartariak eta trikitaliak. Musikarekin eman zitzaion hasiera atzo, domeka, Asentzio egunari Elgetan.

Badira hamar urte herriko gazteek festa hau berreskuratu zutenetik eta aurten ere gaztetxeo lagunei esker ospatu da jaiak.

Elgetako trikitaliak gazteek alaitu zuten Asentzio 11:00etan. Txalapartariak ere aritu ziren, herriko Ainara eta Geaxi, hain zuzen ere.

EGUN OSOKO FESTA

Meza ostean batu zen jende gehien Asentzian. Eguraldi ona aprobetxatuz asko oinez edo bizikletaz igo ziren.

Urtero legez, egon zen nahikoa jan-edana Asentzian batutako guztiak asetzeko. Gure Borda elkarteko kideek txorizo pintxoak eta salda eskaini zituzten ausarki. "Salda bikaina dago!" esaten zuten, doan ematen zuten salda herritarrek dastatu zezaten. Gaztetxeoak ere lanpetuta ibili ziren. Txosnako pintxo-

ek arrakasta handia izan zuten eta 14:00etarako amaitu egin ziren guztiak.

Meza osteko umeen ikuskizunekin asko gozatu zuen jendeak. Dantzak, txotxongiloak eta bertsoak eskaini zituzten eskolako artistek. Aintziran arrantzan aritu zenik ere bazen.

BAZKARIAN 41 LAGUN

Zizka-mizkak, entsalada, xolomoa gazta eta piperrekin, postrea, kafea eta kopa. Asentzio-ko pagopean bapo bazkaldu ostean jaitzi ziren herrira bazkarian bildutako 41 lagunak.

Giro bikaina ekarri zuten herrira Elorrioko Bagabiz trikitalari taldea lagun zutela. Poteoa egin zuten arratsaldean.

• ASENTZIO EGUNA GUSTUKO DUTELA ESAN DIGUTE



AITOR, OSCAR ETA IBON | ELGETA

Hirukote honek bertso oso dotoreak bota zituen atzo Asentzian. "Eskolan prestatu ditugu", esan ziguten. Aintzira ondolan eman zuten ia egun osoa. "Arrantzara etortzen gara, baina ezer gutxi arrantzatzen dugu. Momentuz batere ez".



BEÑAT | ELGETA

"Asentzio eguna oso berezia da elgetarrendako. Elkartu eta festa egiteko aukera ematen du". Beñat urtero etortzen da. Gustukoa du.



IZARNE, ARRATE ETA LEIRE | ELORRIO

Trikitaliak dira eta lehen aldian zuten Asentzio egunean. "Festa polita da. Oso herrikoia eta giro ona dago". Gustura etortzen dira Elgetara. "Kantuan gutxi egiten dute, baina dantzan asko".



MONIKA BELASTEGI

Zapatukoa lehenengo saioa izan zen eta Orientazio froga egin zuten.

35 bat ume Jardunek antolatutako olinpiadetan

M.B.

Zapatuan hasi ziren Bergaran Jardun euskara elkarteak antolatutako umeendako olinpiadak. Bederatzi eta hamaika urte bitarteko 35 bat umek eman dute izena eta ekainaren 11ra bitartean zapaturu batuko dira frogaren bat egiteko.

Zapatuan Orientazio froga izan zuten. Hurrengo hitzordua hilaren 21ean izango dute (datoren asteburuan herriko jaiak direnez ez da olinpiadarik izango) eta hockeyean arituko dira Seminarioko jolas lekuan. Gainerako hiruretan hauxe egingo dute: herri jolasak, boloak, toka eta igela eta sukaldaritza.

• ASENTZIO JAIK, BERGARAN



AINTZANE AGIRRE

MARTOKON ETA ZUBIAURREN JAIK OSPATU DITUZTE

Asentzio jaiak ospatu dituzte Bergarako Martoko eta Zubiaurre kaleetako auzotarrek. Egubakoitzean hasi ziren eta atzo arratsaldean bukatu. Hainbat ekitaldi izan ziren, eta tartean auzoan ohikoena dena: San Migel gainera igo eta hango ermitan meza entzun ostean salda eta txorizoa hartzea. Eguraldiak, gainera, asko lagundu zuen. Atzo, Txarrantxa jatetxean egindako tute txapelketarekin eman zieten amaiera jaiak.

Mazda6. Kirol zaletasuna.

Bikar **M MENDIOLA**
San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

Maddi Arzamendi bergararra da, 25 urte ditu, eta HUHEZIn Enpresarako Giza Zientziak ikasita, gaur egun Martin Berasategui enpresan ari da lanean,

Giza Baliabideetako teknikari moduan. Lau jatorriak eta argitaletxe batek osatzen dute Grupo Martin Berasategui enpresa, eta Maddi eta beste bi lankide arduratzen dira

han dabilzan 115 langileen ongizateaz. HUHEZIn *Gizakom* weblogean elkarrizketa egin diote bergararrari. Elkarrizketa hori orri honetara ekarri dugu.

MADDI ARZAMENDI | GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARI GRUPO MARTIN BERASATEGUI ENPRESAN

"Enpresan sortzen diren gatazken iturria ia beti komunikazio falta da"

Asteleheneko Goiienkaria

Zer da Grupo Martin Berasategui?

Grupo Martin Berasategui enpresa talde bat da. Batetik, jatorriak ditu: Kursaal Jatorria, Guggenheim Jatorria, Bodegón Alejandro, Kukuarri... Martinen Lasarteko jatorria ez da talde horretan sartzen, Martinek berak kudeatzen du-eta. Bestetik, liburuak argitaratzen ditugu, sukaldaritzaren gainekoak eta hainbat produkturen ingurukoak. Azkenekoa izan da *La Dieta de Martin Berasategui*.

Pozik ari zara lanean enpresan?

Bai. Aukera paregabea izan da niretzat GMBn lanean hastea. Oso enpresa gaztea da, munduko toki askotako jendea dago bertan lanean eta, gainera, enpresa berritzailea da, eta kulturarekin zerikusia daukana.

Ostalaritza oso gogorra da. Oso azkar mugitzen da: gaurko bazkaria ezin duzu bihar eman eta, gainera, afaria daukazu emateko; horrek eragina dauka enpresaren arlo guztietan. Errotazioa oso handia da sektore honetan, eta zaila da, adibidez, jendea aurkitzea zerbitzari lanak egiteko.

Zer motatako langileak dituzue?

Gazteak eta leku askotakoak (Espainia, Brasil, Frantzia, Grezia, Peru, Argentina, Nigeria...). Eta lanbideei dagokienez, sukaldariak ditugu, zerbitzariak, komertzialak, administrariak, lorezainak, eta abar. Sukaldean praktikak egitera ere mundu osoko jendea etortzen da.

Horietako batzuek oso bizitza latza dute. Familia guztia euren jaioterrian dago, eta bakarrik

daude hemen. Guk pertsona guztiak etengabe daukagu kontakua, eta arazoren bat dutenean, askotan guregana etortzen dira.

Nola aurkitu zenuen lan hori?

Iragarkia ikusi, eta curriculum bidali nuen. Elkarrizketa eta froga batzuk eginda, kontratatu egin ninduten.

Gogorra egin zaizu unibertsitate enpresara salto egitea?

Lehenago ere hainbat enpresatan ibilia nintzen, unibertsitatean lan egiten nuen egun erdiz. Enpresa bakoitza mundu bat da, eta nahiz eta enpresa-kultura desberdinak ezagutu, enpresa berritan batean sartzea berriz hastea da. Baina esperientzia desberdinak ezagutzeak laguntzen dizu ikuspegi globalago bat izaten.

Giza Baliabideetako teknikaria zara hor: zeintzuk dira zure ardurak enpresan?

Hiru pertsonak egiten dugu lan departamentuan: giza baliabideetako zuzendaria eta bi teknika-



Maddi 1997 eta 2001 urte bitartean izan zen HUHEZIn.

ri. Hirurok denbora gutxi daraguru enpresan, pare bat urte gehienez. Beraz, hasieratik hasi gara gauzak egiten. Alde horretatik polita da, gauza asko ari gara egiten, administrazioaz gain, aukeratzeko-prozesuen definizioa eta ezarpena, lan arriskuen prebentzioa...

Orain, gauza horiez gain, harrera plana diseinatzen ari gara jatorri batzuetarako. Beste batzuetan, berriz, ezarpen fasean gaude. Gauza asko daude egiteko: trebakuntza, kompetentziak,

eta abar. Zentzu horretan, enpresa nahiko berritzailea da, eta gauza asko egin nahi ditugu. Gainera, enpresa gaztea da, eta kultura aldaketa errazago egin daiteke, baina poliki joan beharra dago. Garrantzitsua da jendeak emaitzak ikustea, ezin ditugu gauzak edozein modutan egin.

HUHEZIn ikasitakoak zertan lagundu dizu lanean?

Unibertsitatean lan egiteko modua ikasi nuen eta, noski, garapen pertsonala izan nuen. Nagoen enpresan oso garrantzitsua da talde-lana. Askotan hiru lankideok brometan esaten dugu pertsona bakarra bezala funtzionatzeko dugula. Komunikazioa ezinbestekoa da; egunero ikusten dut enpresan sortzen diren gatazken iturria ia beti komunikazio falta dela, eta horrek sortzen dituen gaizki-uleratuak. Ez da gai erraza.

Pertsonalki, nahiko autonomia naizela uste dut, nire lana egiteko nire espazioa eta denbora behar dut, pentsatzeko astia izan..., bakoitzak bere estiloa du eta hori denborarekin garatzen da.

Unibertsitateak, noski, eragina izango du garapen horretan. Unibertsitatea bizi-esperientzia bat izan da niretzat, ez da baka-

rik klasean ematen duguna, ikasleekin edo irakasleekin dugun harremana..., elementu askoren multzoa da. Orain ere egunero ikasten ari naiz. Pertsonekin egiten dugu lan, eta momentu oso onak eta gogorrak ere pasatzen ditugu, esperientzia honetatik ikasten ari naiz gauzak beste modu batean hartzen eta egiteko modu ezberdinak garatzen.

Ikasketak bukatu zenituenean Ingalaterrara joan zinen. Zeren bila?

Deskonektatzera, eta, bide batez, ingelesa ikastera. Gogoan dut karrera amaitutakoan nolabaiteko "krisi" bat izan nuela. "Orain, zer?". Distantzia batetik ikusi nahi nituen gauzak, erabakiak hartu, ez nuen nire burua enpresan lanean ikusten momentu hartan, eta kanpora joateko gogo handia neukan. Han erabaki nuen masterra egitea Giza Baliabideen Zuzendaritzan.

Zer esango zenioke Enpresarako Giza Zientziak ikasten hasi den bati?

Disfrutatzeko. Karrerak aukera asko ematen ditu. Ni, adibidez, espezializatu egin nintzen, baina aukerak asko dira. Norberak bere ibilbidea egin behar du.

"Ostalaritza oso gogorra da. Oso azkar mugitzen da. (...) Errotazioa oso handia da"

"Unibertsitatean lan egiteko modua ikasi nuen, eta, garapen pertsonala izan nuen"

"GMB enpresa berritzailea da, eta kulturarekin zerikusia daukana"

"Pertsonekin egiten dugu lan eta momentu oso onak eta gogorrak pasatzen ditugu"

Enpresa orrialde honen babeslea:

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupoa taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Albiste izango da

ARRASATE | GAUR IZANGO DA SINATZE EKITALDIA

Lan elkartuko Kooperatibekin hitzarmena sinatuko du MUK

Mondragon Unibertsitateak eta Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak elkarlanerako hitzarmena sinatuko dute gaur eguerdian. MUK gestio metodologiak eta ikerketa proiektuak garatuko ditu Kooperatiben Federazioan batzen diren kooperatibak lehiakorragoak izatera irits daitezzen. Inaxio Oliveri MUKo errektoreak eta Patxi Ormazabal Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioko lehendakariak sinatuko dute hitzarmena. Bestetik, MUK-ak asteon hartuko du Euskadi-Akitania-Nafarroa unibertsitate arteko batzordearen lehendakaritza.

ARAMAIO | MAIATZAREN 10ERA BITARTEAN

Lau urterako bake epaile kargura aurkezteko azken egunak

Aramaioko bake epailea izateko eta honen ordezkoa aukeratzeko epea zabalik dago. Gura duenak baldintza hauek bete beharko ditu: ez da derrigorrezkoa zuzenbidean lizentziaduna izatea; nahikoak dira karrera judizialean sartzeko botere judizialaren Lege Organikoan aipatzen diren baldintzak betetzea; beharrezkoa da espainiar nazionalitatea izatea eta adin nagusikoa izatea; bulegora joateko libre egotea eta autoa izatea.

Kargua lau urterako izango da eta urtean 922,49 euro jasoko ditu. Diru hori lau hilabeteka banatuko da.

Interesatuak eskaerak betetzeko aukera dute udaletxeko bulegoetan, maiatzaren 10era bitartean.

ELGETA | ETZI HIRIGINTZA BATZARRA DEITU DU

Udalbatzar berezia deitu du Elgetako Udalak biharko, martitzena

Gobernu batzordea eta batzorde informatibo berriak osatzeko batzar berezia deitu du Elgetako Udalak biharko. 08:30ean izango da batzar hori eta gobernu batzordearekin batera batzar informatiboak ere aldatuko dira. Aralarrek bere karguak laga ostean. Horrekin batera, udalaren izenean hainbat erakundetara joango diren ordezkariak ere izendatuko dira, bai eta Mankomunitateko batzordeetako ordezkariak ere.

Arratsaldean, berriz, 18:30ean, tokiko gobernu batzarra egingo dute udaletxean. Besteak beste, pilotaleku proiektua eta Uriburuko lanak. Eguaztenean hirigintza obrak eta ingurumen batzordeak deitu du batzarra 18:30ean. Irualde 48 etxebizitza egiteko aurkeztutako proiektua eztabaidatuko da batzarrean.

DEBAGOIENA | DENDARIEN ELKARTEEN EKIMENA DA

Dendariek sariak banatuko dituzte txartela egiten dutenen artean

Bergarako eta Oñatiko dendarien elkarteek sariak zozketatuko dituzte maiatzean kreditu txartela egiten duten bezeroen artean. Txartelak erraztasunak emango dizkio bezeroari ordainketak egiteko orduan, doakoa da egitea eta elkarteko edozein dendatan egin daiteke. Bergaran, txartela eskatzen duten lehenengo 500 lagunak 500 euroko bi bonoren zozketan sartuko dira. Oñatin, maiatzaren 11tik 31ra, Rural Kutzako datafona duten dendetan, txartelarekin egindako erosketak 5 euroko 300 baleren zozketan sartuko dira. Eskoriatzan, berriz, landareak banatuko dituzte hilaren 14an.

ELGETA | AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA JARRIKO DUTE

Gaur itxiko dute Elgetarako errepidea ibilgailu handiendako

Gaurtik, astelehena, uztaillaren 15era arte itxita egongo da Bergararik Elgetarako bidea ibilgailu handiendako. Arrazoia, Izarri eta Uberako bihurguneetan egiten ari diren hobekuntza lanak. Itxierak autobusengan ere izango du eragina. Ondorioz, Bergara-Bilbo lineako autobusekin konektatzeko Elgeta Kanpanzarrekin lotzeko zerbitzua jarriko dute: Elgetatik Kanpanzar aldera honako orduetan irtengo da autobusa: 08:40, 14:00, 17:10 eta 18:10; zapatuetan, 08:40 eta 17:10 eta domeka eta jai egunetan, 09:40, 17:40 eta 20:40. Kanpanzartik Elgetara: 09:15, 13:25, 17:30 eta 18:30; zapatuetan, 09:30 eta 18:30 eta domeka eta jai egunetan, 10:30, 18:30 eta 21:15.

Hitzorduak



BERGARAKO JAIK, IA GERTU, ETA ANTZUOLAKOAK, ANTOLATZEN | Bergaran baltsa-jaitsiera eta presoen aldeko bazkaria egingo dituzte

Hasi da Debagoieneko herrietako jaien denboraldia. Bergaran Mendekosteak ospatzen hasiko dira datorren egubakoitzean, eta Deba ibaian barrena baltsa-jaitsiera antolatu du Herri Mugimenduak. Horretan parte hartzera animatzen direnek zabalik dute oraindik izenemate epea edozein taber-

natan. Bestetik, presoen aldeko bazkarirako txartelak ere salgai daude ohiko tokietan.

Antzuolarrak ere berehala hasiko dira jaiak prestatzen. Horretan interesa duten herritarrekin batzar irekia egingo dute udal arduradunek egue- nian, hilak 12, udaletxean, 18:30ean.

ANTZUOLA |

- **Tokiko Agenda 21 aurkeztuko dute jendaurrean** Bihar, martitzena, aurkeztuko dute egitasmo hori udaletxean, 19:00etan.
- **Kukumarro lehiaketarako izenematea, aste honetan** Hilaren 15ean, San Isidro egunean, egingo dute lehiaketa, eta izena emateko epea zabalik dago eguna arte, hilak 12, udaletxean. Hiru maila daude: 12 urtetik beherakoak, 12 urtetik aurrerakoak, eta erretiratuak.

ARRASATE |

- **Bedoñabe haur eskolan, matrikulazio epea zabalik** Bedoñabe haur eskolan zabalik dago 2005-2006 ikasturterako matrikulazio epea. Hilaren 18ra arte duzue horretarako aukera, Alfonsito VIII kalean duten egoitzan edo 943 79 76 86 telefonora deituta.
- **Giza eskubideak egungo Euskal Herrian hitzaldia** Hitzaldi hori egingo du Julen Arsuagak bihar, martitzena, Monterronen, 19:30ean. Mondrauetarrak taldeak antolatu du hitzaldia.
- **Drogen prebentzioaren gaineko hitzaldia egingo dute** Drogen prebentzioaren inguruko hitzaldia egingo du Txabi Ruiz Ai-Laket taldeko kideak egunean, hilak 12, Monterronen, 18:30ean.

BERGARA |

- **Psikologia bizitako ezbeharren aurrean hitzaldia** Hitzaldi hori egingo du M^a Jose Garcia adituak gaur, astelehena, San Joxepen, 17:00etan, Aulas Kutzak antolatuta.
- **Bergarako Orfeoia batzar orokorra egingo du bihar** Orfeoia batzar orokorra egingo du bihar, martitzena, Zabalo- tegetiko lokalean, 22:30ean.
- **Herri kirolak eta jolas handien topaketa** Eguenean, hilak 12, herri-kirol jokoan apustua egingo dute alebin mailako ikasleek Mariaren Lagundian, eta jolas handien topaketa, aldiz, benjamin mailakoek, Seminarioan, 17:00etan. Sariak 19:00etan banatuko dituzte.
- **Presoen aldeko bazkarirako sarrerak salgai daude** Presoen aldeko bazkaria egingo dute hilaren 14an, zapatua, 14:30ean, eta txartelak salgai daude ohiko tokietan.

DEBAGOIENA |

- **Alzheimer gaixoendako eta familiarendako oporrak** Gizartekintzak eta Afagi elkar- teak Nojan (Kantabria) opor- raldiak antolatu dituzte hona- ko epeetan: ekainak 6-16, ekai- nak 20-30 edo irailak 12-22. Asmoa da gaixo horiei eta fami- liei atsedean hartzeko aukera ematea. Argibideak, udaletan.

ESKORIATZA |

- **Anai-arreben arteko harremanak, Guraso Eskolan** Anai-arreben arteko harremanak: *inbidia, zeloak...* delako hitzaldia izango da eguazte- nean eta egunean, hilaren 11n eta 12an, Guraso Eskolan, 18:00etan.

OÑATI |

- **Kirol berbaldiak astelehen eta martitzenean Eteon** Kirol berbaldiak antolatu ditu Eteok. Gaur, astelehena, Iker eta Eneko Pou eskalatzailaek *7 pareta, 7 kontinente* proiektua aurkeztuko dute, 11:00etan; bihar, martitzena, Imanol Agirre eta Oier Zearra pilotariak egingo dute berba, 17:00etan. Joan gura dutenek izena eman behar dute honako posta hel- bidetan: kirolak@eteo.mondragon.edu.
- **Gurasoendako hitzaldi bat Elkar Hezi ikastetxean** Arauak eta mugak delako hitzaldia egingo du Eraberrri tal- deak bihar, martitzena, Elkar Hezi ikastetxeko Santa Esko- lastika egoitzan, 19:00etan.
- **Garunaren garrantziaren inguruko berbaldia Atecek** Garunaren garrantziaren inguruko hitzaldia egingo dute Atece elkarteko bi kidek bihar, martitzena, Txantxiku ikasto- lan, 18:30ean. DBHko guraso- endako da.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Patinetan ibiltzeko lekua nahi dugu

Bergarako seigarren mailako ikasle talde batek guregana jo du honako eskaria eginez: "Bergaran umeok patinetean ibiltzeko leku gutxi daukagu (bidegorria) eta tranbiaren erruz daukagun zati txikia kendu nahi digute".

• Harrera zerbitzu eskasa

Oñatitir iritsi zaizkigu hurrengo txistuak. Hango kiroldegiko harrera maiz hutsik dagoelako txistuak dira iritsi zaizkigunak. Irakurleak adierazi digunez, harrera zerbitzua ez da egokia izaten, askotan ez baita harrerako arduraduna bere lekuan egoten. Hortaz, "harrera ordutegia moldatzea" proposatu du irakurle horrek.

• Errespetua udal liburutegiko zerbitzuarekin

Arrasateko Monterron jauregiko udal liburutegiak duen DVD eta CDak hartzeko zerbitzua dela eta -asteko hiru egunetan- "ilara mundialak sortzen dira beti!", esan digu irakurle batek. Baina bere txistuak beste zentzu baten doaz: "Udal liburutegiko karneta nominala izanik, guraso asko egoten da umeen karnet mordera eskuan hartuta, baina ume barik. Kontuan izanik karnet bakoitzeko bi produktu atera daitezkeela, besteok iristen garenerako ez da ezer geratzen hartzeko. Hortaz, zergatik hartu daitezke bideoak astean hiru egunetan bakarrik (astelehen, eguazten eta egubakoitzetan) eta ez egunero, liburuak bezala? Eta bestetik, karneta nominala bada, zergatik hori ez da errespetatzen?". Gure irakurleak galdera honekin amaitzen du bere txistu bikoitza: "Jakina, imajinatu hiru egun horietan guraso bakoitzak bere bi seme-alabekin joan beharko balu... A zelako panorama!".

Sarean harrapatuta

Gehiegi gastatzen da jaunartzeetan?

Euskal Herriko kontsumitzaileen elkarteak jaunartzeetako gastuen gaineko ikerketa egin du. Ikerketa horren arabera, 3.000 euro inguru gastatzen dira jaunartzeetan. Jantzia, bazkaria, argazkiak, oroigarriak

eta beste hainbat osagarriak gastua handitzen dute. Udaberria izan ohi da jaunartzeen garaia eta ibarreko herri guztietan egingo dira. Jaunartzeetako gastuaren gainean galdetu dute *Goiena.net*-en.

ZERGATIK EGITEN DA ORAINDIK JAUNARTZEA?

Gehiegizkoa da eta, gainera, nik ez dut ulertzen zergatik egiten den oraindik jaunartzea... Ez da bada esaten elizaren indarra gutxitzen doala?

Atxabalta / www.goiena.net

MODA KONTUA DA HAINBESTE GASTATZEA

Nik ere uste dut larregi gastatzen dela. Opariak direla, arropa dela, ez dakit zer dela. Azken finean kristoren dirutza. Eta zertarako gastatzen da hainbeste diru? Hori ere moda kontua izango da.

Oñatir bat / www.goiena.net

UMEARENDAKO KALTEGARRIA DA

Nire ustez izugarri gastatzen da, gehiegizkoa da. Uste dut hori umearentzat kaltegarria dela. Umeek ez dute jaunartzea egiten kristautasunean sinisten dutelako; opariak jasotzeko egiten dute eta egun batez beraiek protagonista izateko. Jaunartzea egiten ez duena inbidiaz egoten da eta ez du ulertzen zergatik ez duen egin berak.

Jaunartzea egiteko ez dago hainbeste gastatu beharrik, meztara joan eta listo! Jaunartzeak astegunez egitea proposatzen dut nik.

Lolo / www.goiena.net

HEMEN EZ DA HAINBESTE DIRU GASTATZEN

Nire inguruan, behintzat, ez da hainbeste ordaintzen jaunartzea egiteko. Neskaren soinekoa norbaitek lagatakoa izaten da eta mutikoaren jantzia ere bai.

Bazkaria, bakoitzak berea ordaintzen du eta ez jatetxe batean; gehienek elkarteren batean egiten dituzte bazkariak. Argazkiak eta ez ditu argazkilariak egiten; familiakoek egiten dituzte. Hori bai, aurrekoekin ados nago esaten dutenean opari gehiegi

gi egiten zaiela umei. Azkenean, horregatik egiten dute jaunartzea eta hori ere ez da ona, ez umearendako ez kristau komunitatearendako.

Juli / www.goiena.net

JAUNARTZEA EGIN GABE OPARIAK BATZUEI

Badakizue zer den niretzako tris-teena? Gaur egun jaunartzea egiten ez duten umeak ere ospakizunak egiten hasi direla, nola geldituko da bada gure umetxoa besteen inbidiaz?

Opariak jasotzen dituzte, bazkaria egiten dute... Batzuei soinekoa eta guzti erosten diete gurasoek!

Oraingo guraso asko norabidea guztiz galduta dabiltzala uste dut eta beldur apur bat ematen didate seme-alaba horiek. Ez dakit zer irten den hortik...

Txantxiku / www.goiena.net

EZKONTZEN PAREKO DAUDE JAUNARTZEAK

Ezkontzen moduan jarri dira orain jaunartzeak. Nora iritsiko ote gara? Laster eztei-bidaia egingo dute umeek jaunartzea egin eta gero.

Umei balio garrantzitsua erakutsi behar zaizkie, ez gehiegizko kontsumismoan oinarritutakoak.

Aner / www.goiena.net

www.goiena.net

Oraingo jaunartzeetan gehiegi gastatzen dela iruditzen zaizu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Trikitiaren lehenengo eguna egingo dute Arrasaten. Trikitia loraldi berri bat bizitzen ari da?



UNAI ITURRIOTZ | TRIKITI ZALEA

Ez dut uste. Bertsoarekin pasatutakoa gertatu da trikitiarekin: 90eko hamarkadako boom-aren ondoren, gauzak bere onera etorri dira.

Hala ere, lehenengo eztabaidak eta tabuak alboratuta, egungo errealitatera egokitzen jakin du trikitiak.



INES OSINAGA | TRIKITI IRAKASLEA

Ez dut uste, baina ez zait iruditzen ezta ere horrelakorik behar duenik. Trikitiak normalizazioa da behar duena; beste musika tresnen modura ikustea. Ikasle asko dituen musika tresna da eta baliteke modan dagoelako izatea. Trikitiak ez du txistorra eta taloaren zerikusirik izan beharrik.



ENAITZ ALUSTIZA | SOINU JOTZAILEA

Zoritxarrez loraldia baino moda bat izan daiteke. Euskal kutzua emateko eta girotzeko edozein ekitalditara trikitilariak deitzen dira. Nik neuk aurreko irteerak egin ditut, ez dut irteera berririk izan. Loraldia baino gehiago, entzuten delako edo moda dela esango nuke; antzera gabiltzala.



JOSE FELIX AZKARATE | GAZTELUPEKO HOTSAK

Jarraitzen dute gurasoek euren seme-alabak trikiti eskoletara bidaltzen, ospetsuak noiz egingo zain. Pasatu da triki-poparen ufa da gure entzumenen osasunerako; *impasse* baten gauda. Birtuosismoaren bideak bizirik dirau eta kontuz ibili behar. Trikitia duin bihurtuko duenik badago...

Egunkarietako harribitxiak

MANTXATIK MUNDURA

On Kixote Mantxakok, Miguel de Cervantesen liburu klasikoak, 400 urte bete ditu aurten. Gaztelaniazko literaturaren ikur, lehen eleberrri modernotzat jo dute. Mundu osoan ekitaldiak egiten ari dira urteurrena ospatzeko, baita Euskal Herrian ere. Horren harira, liburuaren gaineko erreportajea egin zuen atzo *Berriak*.

'Berria'
2005-05-09



BIZI OHITURAK ALDATZEN DOAZ

Azken urteetan asko aldatu dira bizi ohiturak. Gipuzkoan, duela hamar urte ohikoena bikotearekin edo familian bizitzea bazen, gaur egun, herritarren %20k bakarrik bizitzea erabakitzen du. Hau da, bost etxebizitzetatik baten pertsona bakarra bizi da; duela hamar urtekoaren aldean bikoitza. Halaxe azaltzen zuen atzo *Deia* egunkariak gai horri eskainitako bi orrialdetan.

Bailarei erreparatuz gero, Debabarrena da familia tamaina txikiena duena: 2,5 pertsona etxebizitzako. Herrien kasuan, berriz, Donostia da pertsona bakarreko etxebizitzak gehien dituenena. Bestalde, seme-alabadun familien kasuan, 1981ean %66 ziren seme-alabak zituzten familiak; gaur egun, berriz, %44 dira.

'Deia'
2005-05-09



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-V-09

Egunkarietan irakurri dugu

'El País'

PROZESU BUKAERA

Behin betiko balantzea egiteko jakin behar dugu egin diren eskaeretatik zenbat bihurtzen diren alta Gizarte Segurantzari. Logika gutxi izango luke etorkina lanean hartu eta bulego publikoetara paperekin joateko urratsa eman duten pertsonak azkeneko unean etorkin hori albo batera lagatzea.

Editoriala
2005-05-09

'El Mundo'

ARAZO HANDIAGOA EKARRI DU

Erregulatzearen okerreza ez da izan metodoa, ondorioak baizik. Noski, ekonomiaren hazkundera bultzatu egingo du kotizazioen bat-bateko hazkuntza bortitzak, baina zerumugan prozesuak bultzatutako migrazio-olde berriak ikusten dira, eta horiek integrazio eta delinkuentzia arazoak ekar ditzakete.

Editoriala
2005-05-09

'Deia'

OSATU GABEKO ERREGULATZEA

Legez kanpoko etorkinek oldeka etortzen jarraituko dute herrialde garatueta. Horregatik, Europak garatu behar ditu atzerriarttasun politikak eta estrategiak olde horiek kontrolatu ahal izateko -beti ere irizpide arrazional, justu eta humanitarioekin-. Baina oraingo legeekin baino modu erabakigarriagoan.

Editoriala
2005-05-09

'Gara'

EUROPAKO ATEA BERRIZ ITXITA

Indarrean dagoen Atzerriarttasun Legeak neurri errepresibo eta murriztaileekin tratatu behar den arazo gisa hartzen du inmigrazioa. Eta modu horretan geldiezin den migrazio fenomeno bat dago. Argi dago bide horretatik arazoak bakarrik sortzen direla: etorkinek eurek, eta etorkin horiek hartzen dituzten herriek jasaten dituztenak.

Editoriala
2005-05-09

Zorroztailera



Itxura

"Armairu batek arropa aukeratzen du egun horretan egin behar duzunaren arabera eta kalean den eguraldiaren arabera. Ideia honek ideiarik onenaren saria jaso du, duela hamahiru urtetik Donostiako Deusto Unibertsitateko Esme enpresa juniorrak antolatzen duen sariketan. (...) Army armairu inteligenteak sistema informatiko bat dauka, eta urtaro eta asteke egunen arabera jantzi egokia aukeratzen du.

'El Diario Vasco' | 2005-05-07

Elena Laka

Gazteek sumatu dute gaur eguneko arazo larrienerako bat zein den: goizean arropak aukeratzea. Halako arazoa, halako irtenbidea. Tori armairu informatizatua, egunero jantzi egokiak aterako dizkizun morroi azkarra. Akabo etxetik irten baino lehenagoko buruhausteak, hemendik aurrera guztiok aldarre erlaxatuan abiatuko gara goizero. Edozein lan dugula, beti egoki jantzita. Amaginarrebarenera bazkaltzera joateko, amorrante ohiarekin afaltzeko edo umearen irakaslearekin berba egitera joateko beti itxura egokia, zeuk minutu bat ere xahutu barik. Itxura perfektua mundu perfekturako.

Politikarientzat ere izan ditzake aplikazioak, indarrak aurreratuko dituzte herrigintzaren

mesedetan: bukatu da mitinetara joateko zein alkandora eraman pentsatzea, legebiltzarrerako zein koloretako gorbata erabili. Eta akabo badatorrela dioten zera hori negoziatzeko kamuflaje, jubilatuta ala mendigoizale erropak egokiagoak diren erabakitze denbora luze horiek armairuaren aurrean.

Itxuraren erreinuan itxurakerietan dabilzanek topatu diote armairuari sartu-irtenak egiteaz gain beste funtzio bat. Gizarte estetikoki perfektuan bikain enkajatzeko harri filosofala, itxuraren Zilarrezko Q-a eskuan ipiniko dien tramankulu ezin hobea. Horregatik sarituko ote zuten zorioneko armairu azkarra. Armairuarena begiak zabal-zabal irakurri ondoren sendo bota du auzokoak: geroz eta leku gutxiago geratzen da itxuraz haratagoko arazoetarako, alegia, bizitzak dituen benetako arazoetarako.

"Itxuraren erreinuan itxurakerietan dabilzanek topatu diote armairuari sartu-irtenak egiteaz gain beste funtzio bat"

"Geroz eta leku gutxiago geratzen da itxuraz haratagoko arazoetarako, alegia, benetako arazoetarako"

KIROLA

- Eskoriatzako saskibaloit taldeak mailan mantentzea gero eta gertuago du | 19
- Gipuzkoako eskolarteko piraquismo txapelketa Bergaran jokatu zen | 20



Javier Zurbano
Arrasateko
saskibaloit
entrenatzailearekin
egon gara | 21

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ARGAZKI PRESS

Mari Lakruzek partidu oso ona jokatu zuen, eta gainera Athleticen bigarren gola sartu zuen. Forma onean dagoela erakusten dihardu Marik.

ATHLETIC | EUROPAKO POSTUETARA GERTURATZEKO BALIO IZAN ZUTEN HIRU PUNTU LORTU ZITUEN

Nafarren golei esker, aragoiarrak esku hutsik irten ziren Bilbotik



Jon Unamuno

Denboraldiko partidu erakargarrienak heltzeke daude. Zaragozari Urzaizen eta Lakruzen golei esker 2-0 irabazi ostean, ligako helburua oraindik tente mantentzen da. Bestalde, Kopako partidua etzi jokatuko dute. Euskal final bat ikusteko amorratzen

Etzi kopako finalerdiko itzulera partidua jokatu du Betisen kontra. Finala jokatzeko txartela etxean lortu beharko du eta taldea ondo dagoela erakusten ari da

dago Athletic zale bat baino gehiago eta "Errege Kopa" beharrean, "Lehendakariaren Kopa" jokatu dela entzuten da zale askoren artean.

Ismael Urzaizen gol bat ikusteak poztu gintuen. Aspaldi honetan atearen aurrean ez zebilen fin

tuterarra. Bi urtetarako sinatu berri du taldearekin eta Ismael gol bat sartuz erakutsi zuen akordioarekiko oniritzia. Fernando Llorente jokalaria ona da eta minutuak behar ditu hobea izateko. Hori dela eta, orain Valverdek eta gero Mendilibarrek beharrezko-

ak dituen minutuak eskaini beharko dizkiote errioxarrari.

48 ORDU BASTERIK EZ DIRA FALTA

Ez da ezer falta Betisen kontrako partidua jokatzeko. Gauza asko daude jokoan partidu horretan: zaleen ilusioa, Valverdek egindako lan bikaina borobiltzea, jokalarien prima... Azken arrazoi hori soberan dago; izan ere, Athleticetako jokalariek bada-kite zer dagoen jokoan eta eurek lortu dezaketzen prima horri ez liokete begiratu behar. 48 ordu eta epaileak hasiera emango dio par-

tiduari. Benetan zirrargarriak izango dira partiduko minutuak. Betisek derbia jokatu du asteburu honetan eta ondo gainera. Talde gogorra izango du aurrean Athleticcek.

Zelako partidua izango den galdetu dugu aste honetako inkestan eta erantzun desberdinak jaso ditugu. Izan ere, denboraldi honetan partidu zoro asko ikusi ditugu San Mamesen eta etzikoak horrelakoa izango delako itxura osoa du. Gure aldetik, San Mamesen Kopa bat gehiago sartzeko lekua egiten joan daitezela gomendatzen diegu langileei.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZER EGINGO DU ATHLETICAK EGUAZTENEAN BETISEN AURKA?



SANTI ETA JAIME |
ARETXABALETA

“Final euskalduna egongo dela uste dugu eta talde bilbotarrak irabaziko du”

“Athletic sendo dabil. Galtzen hasiko da, baina erreakzionatu egingo du eta markagailuari buelta emango dio. Talde bilbotarrak, finala jokatu du, eta aurrean Osasuna egotea gustatuko litzazuke”.



ANDONI |
ARRASATE

“Talde bilbotarrak bi gol sartuko dizkio Betisi”

“2-1 irabaziko du. Oliveirak Betisen zelai erdia kontrolatuko du, baina Athleticen aurrean fin ibilita 2 gol sartuko ditu”.



ANTONIO ETA PEDRO |
ARETXABALETA

“Bilbon jokatzeko dutenez, etxeko taldea indartsu aterako da eta irabazi egingo du”

“Etxean jokatzeko dutenez, bilbotarrak hasiko dira agintzen. Betisek, kontraerasora min egingo die. Finala, Athleticen eta Osasunaren artean jokatzeko gustatuko litzazuke; eta Anoetan baldin bada hobeto”.



MARINA, ANE ETA LAURA | BERGARA

“Real zaleak gara, eta finalera pasatzekotan, Osasuna pasatuko da”

Hiru neska gazte hauek, uste dute Athleticen ez duela Betisen aurkako partidua irabaziko. Real zaleak dira, eta nahiago dute Osasuna finalera pasatzen baldin bada, eta irabazten badu hobeto. Emaitza bat eman digute: 1-2, Betisen alde.



SERAFIN, ANGEL ETA VICENTE | ESKORIATZA

“Bilbotarrak finalera iritsiko dira, eta irabazi egingo dute seguru”

“Athleticen irabaziko du 3 eta 1 edo 2 eta 0. Partidua erraza izango dutela uste dugu, azken aldian ahul samar ari baita Serra Ferreren taldea. Pena bat da, Athleticen kopa irabaziko duelako, eta Valverde ez duelako jarraituko taldean”.

Reala

Reala dagoeneko oporretan pentsatzen dabilela ematen du

Denbora pasa irten ziren Alfonso Perez Coliseumera eta aurrendenboraldiko partidua jokatzeko zebiltzala zirudien



Jokin Etxebarria

Txinpartarik gabeko partidua. Hiru hitz nahikoa dira atzoko partidua definitzeko. Amorrortuk aldaketa asko egin zituen Getaferen aurka jokatzeko. Denok harrিতuta utzi gintuen Luiz Alberto eta Brechet batera atera zituen, eta Lopez Rekarte jokatzeko ikusita. Eta are gehiago, Karpin aulkian utzi eta Gabilondok titular jokatu zuela ikusitakoan. 20. minutuan gertatu zen hau, gutxi gorabehera. Gabilondok bere lehen baloia ukitu zuenean.

Argi dago probak egin nahi izan zituela deustuarrak eta ez zitzaion batera ondo atera. Defentsa guztiak aldatu zituen eta hauek guztiz galduta ibili ziren. Baina ez sistemak huts egin zuelako –Reala baloiaren jabe izan zen partidu guztian zehar–, jokalariek partiduan beharrenean beste mundu, planeta, edo ilargi batean zutelako burua, baizik.

Bi taldeek bete dute denboraldian egin beharrekoa. Eta orain ondo pasatzera irten behar dute zelaira. Ondo pasatzera, eta ikusleari ikuskizun polit bat eskaintzera. Ez zaleak aspertzera. Eta Realak atzokoan horixe egin zuen. Agian pentsatuko zutelako euren jarraitzaileak TAU ikusten egongo zirela. Eta nahiz eta Baskoniarrek Euroliga ezin irabazi, ziur euren partidua gehiago merezi izan zuela. Craioveanu ikusteko irrikan zegoenak ere gehiegi itxaron behar izan zuten.

Getafek bere partidua egin zuen. Kontraerasoetan min egin. Michelek eta Komek Realeko defentsa erotzeraino zain egon, eta bi kórnerretan gola egin. Zertarako gehiago?

OPORRAK ETA DATORREN DENBORALDIA BURUAN

Astea ederki mugiarazi zuen Roberto Carlosek bere adierazpenekin. Bartzelonak azken partidua zeukala, eta eurak liga irabazteko lan gehiago egin behar zutelako... Ez dut uste Realak

GETAFE

2-0
REALA

Getafe | Aragonese, Yanguas, Belenguier, Nano, Pernia, Raul Albiol, Gabi, Vivar Dorado, Mario Coteló (Gallardo 63. min.), Kome (Craioveanu 65. min.) eta Michel (Riki 76. min.).

Reala | Riesgo, Lopez Rekarte, Brechet, Rossato, Mikel Alonso, Aranburu, Gabilondo (Karpin 61. min.), Barkero (Agirretxe 61. min.), Luiz Alberto, Uranga eta De Paula.

Golak: 1-0 Michel (30. min.), 2-0 Michel (41. min.).

Epailea: Fernandez Borbalan. Ez zuen arazorik izan.

Bikain

INOR EZ

Realak atzokoan ez zuen batere ondo jokatu. Nahiz eta baloi jabetza euren izan zen, Aragonesen atera ez zirela gerturatu, eta horrela irabaztea ezinezkoa da.

Kaskar

GABILONDO

Aspaldiko partez titular irten zen, eta ia ez zuen baloirik ukitu. Eta ukitu zituen gehienak, galdu egin zituen. Ez genuen ikusi ere egin.

azken partiduan gehiegi pentsatzen duenik. Burua oporretan daukala ematen du eta. Gainera, datorren urtean askok ez dute jarraituko. Karpinek futbola utziko du. Rossatok, Mladenovicek eta beste baten batek ez dute jarraituko. Eta azken zurrumurruean arabera Nihatek, Karpini bidaian laguntzeko edo, Vigora alde egingo du.

Kontuak kontu, ekainaren 30etik aurrera egongo den Zuzendaritza berriak lan asko egin beharko du, batez ere zaleen artean galdutako ilusia berpizten.

Partiduan beharrenean, beste mundu batean zuen burua Realak

Zuzendaritza berriak lan asko egin beharko du zaleen ilusia berpizten

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Deportivo-At. Madril	2-0
Valentzia-Bartzelona	0-2
R. Madril-Racing	5-0
Getafe-Reala	2-0
Betis-Sevilla	1-0
Athletic-Zaragoza	2-0
Albacete-Levante	3-1
Osasuna-Mallorca	1-1
Malaga-Vila-real	0-2
Espanyol-Levante	3-1

HURRENGOAK

Vila-real-Albacete
Mallorca-Athletic
Levante-Bartzelona
At. Madril-Betis
Zaragoza-Deportivo
Sevilla-R. Madril
Espanyol-Valentzia
Racing-Getafe
Numantzia-Osasuna
Reala-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	81	35	25	4	6	69	25
2. Real Madril	75	35	24	8	3	66	29
3. Vila-real	58	35	16	9	10	61	32
4. Sevilla	58	35	17	11	7	42	37
5. Espanyol	56	35	16	11	8	49	43
6. Betis	55	35	14	8	13	56	46
7. Valentzia	53	35	13	8	14	50	37
8. Athletic	51	35	14	12	9	56	46
9. Deportivo	49	35	12	10	13	43	44
10. Zaragoza	49	35	14	14	7	47	49
11. At. Madril	48	35	13	13	9	37	30
12. Reala	45	35	13	16	6	44	51
13. Getafe	45	35	12	14	9	35	42
14. Osasuna	44	35	12	15	8	43	61
15. Malaga	42	35	12	17	6	33	47
16. Racing	38	35	10	17	8	38	55
17. Levante	35	35	9	18	8	37	53
18. Mallorca	32	35	8	19	8	34	59
19. Albacete	27	35	6	20	9	31	52
20. Numantzia	24	34	5	21	9	25	58



Kiniela

KINIELA

1. Malaga-Vila-real	2
2. Getafe-Reala	1
3. Real Madril-Racing	1
4. Betis-Sevilla	1
5. Deportivo-At. Madril	1
6. Osasuna-Mallorca	X
7. Athletic-Zaragoza	1
8. Espanyol-Numantzia	1
9. Valentzia-Bartzelona	2
10. Albacete-Levante	1
11. Murtzia Hiria-Murtzia	2
12. Tenerife-Celta	1
13. Cordoba-Malaga B	1
14. Lleida-Alaves	2

PREFERENTE MAILA



JOKIN ETXEBARRIA

Baloiak areatik hurbil zebiltzanean segituan ateratzen zituzten aurrera Oriokoko defentsek.

Partidu aspergarri bateko emaitzarik logikoena

MONDRA

0-0

ORIOKO

Mondra | Ander, Markel, Barbarias (Eldin 79. min.), Merkader, Argider, Ruben, Arkaitz (Illart 67. min.), Garmendia (Inazio 75. min.), Maikel (Torres 67. min.), Keixi eta Asier (Loiti 62. min.).

Orioko | Ibai, Eneko, Iraitz, Joseba, Jorge, Solabarria, Makazaga (Ibon 90. min.), Saez (Jagoba 83. min.), Olaizola (Torre 70. min.), Jonpa (Txabola 57. min.) eta Jauregi (Pollo 67. min.).

Epailea: Imanol Matas. Partidua nahiko ondo eraman zuen. Hala ere, Orioko taldekoek txartel gehiago merezi izan zituzten partiduan zehar.

Jokin Etxebarria

Talde batek ezer ez duenean jokoan, eta puntu beharrean dagoenak erasoan ezer erakusten ez duenean, partidua berdinketan bukatzea izaten da logikoena. Eta normalean partidua aspergarria izaten da. Hori izan daiteke Atxabalpeko partiduen laburpena.

Etxeko taldeak dagoeneko denboraldian egin beharrekoak egin ditu eta hori aprobetxatuta, jende gazteari minutuak emateko aprobetxatzen dabil Josu Zubia. Zapatuan, adibidez, Julen Garmendiak hasieratik jokatu zuen, eta partidua oso ona jokatu zuela esan beharra dago. Oriokok beheko postuetan jarraitzen du,

eta etxetik kanpo puntuak lortzea ondo dator. Helburu horrekin irten ziren zelaira, golik ez jasota, gutxienez puntu bat jasotzeko. Horrek atzean sendo jartzerak eta baloiaren jabetza etxeko-ek ematera eraman zituen. Eta partiduen pisua Mondrakoek eraman bazuten ere, ez zuten gol aukerarik sortzen jakin.

Baina kanpokoak ere ez ziren gehiegi hurbildu Anderrek babesten zuen atera, azken minutuetara arte. Bost minutu faltan, falta jaurtiketa batean izan zuten kanpokoek partiduko aukerarik garbiena. Baina Anderrek egundoko gelditua egin zuen. Kontuak kontu, Oriokok nahi zuena lortu zuen: gutxienez puntu bat ateratzea Atxabalpen.

Puntu bakarrarekin etorri ziren hobeto jokatu

ZESTOA

1-1

BERGARA

Zestoa | Aranguren, Iñigo, Quindos, Ugarte, Etxebarria, Diaz (Arrue 67. min.), Zubimendi, Eizagirre, Aldalur, Altuna eta Uria (Maicon 80. min.).

Bergara | Markel, Elkorobereizbar, Arana, Berraondo, Iker, Agirre, Maiztegi (Zubikarai 64. min.), Otero, Cabanillas (Ibañez 77. min.), Unai (Salegi 75. min.) eta Garin.

Golak: 1-0 Uria. 1-1 Otero.

Epailea: Imanol Eizagirre. Oso txarto ibili zen. Etxekoek alde zegoela gehiegi nabarmendu zitzaion.

A.G.

Beste behin ere aurre aldean barbatzeak bi puntu ez lortzea ekarri zuen. Lehenengo zatian Bergarak aukera batzuk izan zituen, baina gola Zestoa sartu zuen. Izan zuten aukera bakarrean gola sartu zuten etxekoek.

BIGARRENEAN HOBETO

Bigarren zatian Bergarak oso ondo jokatu zuen. Aukera asko izan zituzten eta hauetako batean Oterok berdinketaren gola sartu zuen. Hala ere, garaipena lortzeko beste bat falta izan zitzaion.

Hurrengo partidua Zarautzen kontra izango dute etxean eta irabazi besterik ez dago.



AINZANE AGIRRE

Joko gutxi ikusi ahal izan genuen atzokoan Azkoagainen.

Partidu eskas batean, puntu bat eta lasaitasuna

ALOÑA MENDI

1-1

HONDARRIBIA

Aloña Mendi | Elgarresta, Lopez, Astola, Sanchez (Losada, 81. min.), Olalde, Barrena, Garai, Biain (Moia, 65. min.), Arejola-leiba (Astigarraga, 76. min.), Larrea (Arregi 56. min.) eta Igartua (Idigoras, 56. min.).

Hondarribia | Amiano, Sanchez, Santamaria, Arrazola, Rodriguez, Navarro, Muñoz (Francisco, 85. min.), Nogueira, Elbordin (Retegi, 42. min.), Elizalde eta Amunarriz (Arrieta, 67. min.).

Golak: 1-0 Unai Biain. 1-1 Nogueira.

Epailea: Ivan Haro jauna.

baloiaren jabetza. Aukerak bi taldeek izan zituzten, baina bat bera ere ez argia. Markagailuan etxeko taldea aurreratu zen lehen zatiaren amaiera aldera, Unai Biainek sartutako gol bikain bati esker.

HONDARRIBIAK BERDINKETA

Bigarren zatia hasi eta berehala, jokalaria zelaian oraindik kokatu gabe zudenean, kanpoko taldeak berdinketaren gola lortu zuen. Handik aurrera, bi taldeak saiatu ziren, eta bina aukera garbi izan zituzten bigarren gola sartzeko, baina azkenean puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuten.

Puntu honekin, Aitor Orue-tak zuzentzen duen taldea 45 punturekin jartzen da sailkapenean, eta badirudi nahikoa izango direla mailari eusteko. Hala eta guztiz ere, atzoko baina joko hobea azaldu beharko dute sailkapenean gora egiteko.

Jasone Zabala

Partidu txarra ikusi genuen atzo Azkoagainen zelaian. Lehen zatia nahasia izan zen, batez ere erdialdean ez zen inorentzat izan

Azkueren irteerarekin etorri ziren UDAREN golak

UDA

2-1

ORDIZIA

UDA | Perez, Lur (Kepa 65. min.), Oxel, Armendariz, Unamuno, Alvaro, Uribechebarria, Igartua (Vadillo 82. min.), Arriaga (Nuñez 77. min.), Orueta (Erik 63. min.) eta Imanol.

Ordizia | De Marcos (Aizpurua 67. min.), Mugika, Gonzalez, Aramendi, Iraola, Garmendia, Crespo, Mendez (Arrieta 63. min.), Irastorza, Odriozola eta Urdangarian (Tello 59. min.).

Golak: 0-1 Irastorza. 1-1 Eriko. 2-1 Kepa.

Epailea: Iker Perez. Gaizki, bai bera eta bai marrazainak ere.

Jon Unamuno

Partidu garrantzitsua zuen UDAREN atzokoa. Beheko postuetatik irtetzen dihardu eta etxean hiru puntuak lortzeko bolada onarekin jarraitzea suposatuko luke.

Lehen zatia hutsean amaitu zen. UDAREN izan zituen aukerarik garbienak, baina epailea eta marrazainak aukera argi bat baino gehiago ezeztatu zituzten.

ROKERO ZAHARREN IRTEERA

Bigarren zatian ordiziarrek, atera heldu ziren lehenengo aldian, gola sartu zuten. Felix Recio Eriko eta Kepa atera zituen zelaira. Kepari penaltia egin zioten eta Erikok banakoa sartu zuen. Bes-



Taldearen gidaria.

te jokaldi batean, Imanolek ezkerretik erdiratu zuen eta Kepak bi eta batekoa sartu zuen area barrutik. Gertuago dago helburua.

• GAZTE MAILA (FEDERAZIO KOPA)



AINZANE AGIRRE

ALOÑA MENDI 1 - REALA 3

Partidu polita ikusi ahal izan genuen zapatuan Azkoagainen. Etxeko taldea bikain hasi zen jokatzen, eta 1 eta 0koa sartu zuen. Baina lehen zatia-aren amaiera aldera, Reala zelai erdia hartzen joan zen, eta poliki-poliki nagusitzen. Ondorioz, par-

tidua berdindu egin zen. Bigarren zatian, donostiarren teknika ona agerian gelditu zen, eta oñatiarrek ez zuten aukera askorik izan. Honela, bigarren gola kanpoko taldeak egin zuen. Aloña saiatu zen, baina Realak hirugarrena ere egin zuen.

• 2. MAILAKO GAZTEAK

Gol festa Estalan, eta lehen postua ziurtatuta

ANTZUOLA	BEASAIN
5-0	

A.G.

Goitik behera menderatu zuen Antzuolak zapatuan Beasain.

Lehen zatia hasi eta berehala, 2 eta 0 jarri ziren aurretik etxekoak. Lehen gola Arbuluk egin zuen, eta bigarrena, Unaik. Goitik behera agintzen ari ziren etxekoak. Beasaingoan atera erraztasun handiz heltzen ziren. Honela, lehen zatia amaitu aurretik, hirugarren gola egin zuten etxekoak; golegilea Ibon izan zen.

Bigarren zatian, Beasain aurrera begira atera zen, markagailua txukuntzeko, baina defentsan hutsune handiak utzi zituen, eta honek aukera eman zion Antzuolari beste bi gol egiteko. Laugarrena Aitorrek egin zuen, eta bosgarrena eta azkena Unaik, gol ederra benetan. Horrela, Antzuolak sailkapeneko lehen postua ziurtatu zuen, bigarren doan Beasainen aurka partidu ederra egin ondoren.

• OHOREZKO KADETEAK

Erraztasunez gailendu zitzaion Mondra Bergarari

MONDRA	BERGARA
4-0	

Jokin Etxebarria

Hasiera-hasieratik izan zen Mondra gehiago Atxabalpen Bergararen kontra jokatutako derbyan. Zelai handian jokatzean, espazio handiagoak estali behar ziren, eta bergararrak ez ziren ondoegi moldatu.

Lehen zatia hasi eta berehala aurreratu ziren gainera etxekoak. Bergararrak aurrera etorri ziren orduan, eta etxekoen defentsari buruhauste bat edo beste sortu zieten, baina ondo eutsi zuten Mondrakoek, eta gutxika-gutxika berriz ere baloiaren jabe egin eta partiduari neurria hartzen hasi ziren. Baita bigarrena egiteko aukerak sortzen ere. Baina hau bigarren zatia-aren hasiera arte ez zen iritsi. Zati hau etxekoak nahi izan zuten moduan jokatu zuten, aukera asko eduki zituzten, eta baita hiru gol gehiago sartu ere, egindako jokaldi polit batzuk ongi bukatuz.

• OHOREZKO KADETEAK

Azkeneko 15 minutuetan erabaki zuen Realak partidua

ALOÑA	REALA
0-5	

A.G.

Emaitzak ez du erakusten partiduan zehar ikusi zena; izan ere, bigarren zatiko 25. minutura arte, emaitza huts eta batekoa zen. Aloñak, gainera, partidua berdintzeko aukerak sortu zituen, baina baloiak ez zuen sartu nahi izan. Joko aldetik alde nabarmena ikusi zen bi taldeen artean. Etxekoek baloiak aurrera edonola jaurtitzeko zuzten bitartean, Realeko jokalariek baloia euren artean pasatuz eman zuten denborarik gehiena. Nahiz eta emaitzak kontrakoa erakutsi, Aloñak defentsa lan polita egin zuen, baina Realak kalitatezko jokalariek dituzte. Aloñak bigarren gola jaso zuenean agertu zen jokariengana nekea eta joko maila jaitsi zuten.

Hiru partidu gelditzen dira liga bukatzeko eta hiru puntu behar dituzte mailari eusteko. Aldapetarrak izango da hurrengo asteko arerioa.



Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

PUNTU BAT, BAINA EGOERA LARRIA DA

Hiru jardunaldi gelditzen dira liga amaitzeko, bederatzi puntu. Ibarreko taldeen artean lasai egon daitezkeen bakarrak, Mondra eta Aloña Mendi dira, nahiz eta oñatiarrek matematikoki mailari eusteko punturen bat gehiago beharko duten. UDAk ere, bere esku dauka mailari eustea. Benetan egoera zailean dagoena, Bergara da. Gelditzen diren hiru partiduetan irabazi beharko litzuzke, eta hala eta guztiz ere, beste taldeek zer egiten duten zain egon.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA			BESTELAKOAK		
Sailkapena	Punt.	J.	Emaitzak		
1. Tolosa	76	35	Mondra-Orioko	0-0	GAZTEEN EUSKADIKO LIGA (KOPA) Aloña Mendi-Reala 1-3
2. EHU	74	35	Pasaia-Urola	3-0	LEHEN MAILAKO GAZTEAK Arrasate-Amara Berri 0-6 Lengokoak-Bergara 3-2 UDA-Arizmendi-Illintxa 1-6
3. Ordizia	63	35	UDA-Ordizia	2-1	BIGARREN MAILAKO GAZTEAK Bergara-Oiartzun 4-1 Antzuola-Beasain 5-0
4. Real Union	59	35	Touring-Mutriku	6-1	KADETEEN OHOREZKO MAILA Aloña Mendi-Reala 0-5 Arrasate-Bergara 4-0
5. Zarautz	58	35	Zarautz-Oiartzun	2-3	LEHEN MAILAKO KADETEAK UDA Arizmendi-Zumaiaiko 2-1
6. Trintxerpe	51	35	Zestoa-Bergara	1-1	BIGARREN MAILAKO KADETEAK Orioko-UDA Arizmendi 2-1 Bergara-Soraluze 14-1 Antzuola-Zestoa 3-1
7. Mondra	49	35	Aloña Mendi-Hondar.	1-1	EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA) Añorga-Aloña Mendi 3-1 Beti Ona-Almen UDA 3-0 Mutriku-Mondra 1-1 Bergara-Vasconia 2-1
8. Pasaia	46	35	Tolosa-Trintxerpe	5-0	EMAKUMEEN F-8 LIGA Antzuola-Urola 0-2 Almen UDA-Urki 3-2 Almen Arizmendi-Elgoibar 3-3
9. Mutriku	45	35	Anaitasuna-R. Union	2-2	INFANTIL OHOREZKO MAILA Beasain-UDA Arizmendi 1-4
10. Zestoa	45	35	Hurrengoak		INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA) Aloña Mendi-Kostkas 2-3 Bergara-Trintxerpe 0-0
11. Aloña Mendi	45	35	Orioko-Beti Gazte		INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA) Eibartarrak-Arrasate 2-2
12. Hondarribia	43	35	Urola-Mondra		INFANTIL TXIKI (KOPA) UDA Arizmendi-Sanse 1-1
13. Touring	43	35	Ordizia-Pasaia		INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA) Antzuola-Ordizia 0-4 Aloña Mendi-Urki 9-1 Bergara Atsedena
14. UDA	43	35	Mutriku-UDA		ALEBINAK (2. FASEA) Antiguoko-UDA 10-0
15. Anaitasuna	42	35	Oiartzun-Touring		
16. Orioko	40	35	Bergara-Zarautz		
17. B. Gazte	38	35	Hondarribia-Zestoa		
18. Urola	36	35	Trintxerpe-Aloña Mendi		
19. Bergara	36	35	Real Union-Tolosa		
20. Oiartzun	23	35	Anaitasuna-EHU		

OHOREZKO GAZTEAK		
Sailkapena	Punt.	J.
1. Antiguoko	71	31
2. Zarautz	59	31
3. Zumaiaiko	57	31
4. Union Txiki	57	31
5. Sto. Lizeoa	56	31
6. Ordizia	51	31
7. Eibartarrak	51	31
8. Anaitasuna	50	31
9. Hondarribia	47	31
10. UDA	41	31
11. Mondra	36	31
12. Martutene	36	31
13. Urola	35	31
14. Aurrera	34	31
15. Mariño	33	31
16. Aldapetarrak	32	31
17. Euskalduna	21	31
18. Dunboa-Eguzki	20	31

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)		
Sailkapena	Punt.	J.
1. Amaro	25	12
2. Lasarte Ori	25	12
3. Urki	22	12
4. La Salle	20	12
5. Antzuola	14	12
6. Donibane	6	12
7. Zestoa	6	12

23. ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

AINTZANE AGIRRE

Podiumean denak zoriontsu zeuden. Batzuk lasterketa bikaina egin zutelako eta beste batzuk lanaren ondorioz, lasterketa ondo irten zelako.

JANTZI KIROLA EUSKARAZ | EUSKARA KIROLEAN SUSTATZEKO LASTERKETAN ADIN GUZTIETAKO LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE

Arrasatetik Oñatira 164 lagunek egin zuten korrika euskararen alde

Asier Cuevasek eta Nieves Zarzak ez zuten arerio gogorrik izan garaipena eskuratzeko

104 debagoiendarrek hartu zuten parte lasterketan eta aipatzekoa da Yeray Varelak lortutako 3. postua

Jon Unamuno

Arratsaldeko lehenengo protagonistak txikiak izan ziren. Etorkezunean, bertan egon ziren hainbat umek nagusien proban parte hartuko dute seguru asko. Hauek bukatu ostean hasi zen nagusien proba. 11,6 km zituen probak eta eguraldia lagun izan

zuten. Eguzkia egin arren, hai-zeak jotzen zuen eta bero sentazioa ez zen handia izan.

Lasterketaren hasieratik Asier Cuevas eibartarra irabaztera irten zen. San Prudentzion bera pasatu zen lehenengo eta atzerago Ekaitz Osa eta Yeray Varela oñatiarrek jarraitzen zioten. Emakumeetan Nieves Zar-

za pasatu zen lehena. Gero eta alde handiagoa lortu zuen Asierrek, baina atzetik aldaketa batzuk egon ziren Zubillagara heldu orduko. Antonio Gomez iurretarra atzetik gogor etorri zen eta bigarren pasatu zen. Yeray Varela hirugarren pasatu zen. Helmugara ere horrela heldu ziren. Bukaeran Asier Cuevas pozik ageri zen. Orain dela hiru urte-tik Arrasate-Oñati lasterketan parte hartu gabe zegoen, eta itzuleran garaipena lortu zuen. Lasterketa gogorra iruditu zitzaion. Erraz irabazi zuen proba eta zera esan zuen helmugan: "Maila handia duten pare bat korrikalari ez dira etorri eta horrela, nire erritmoan lasterka eginez irabaztea lortu dut". Yeray Varelaen helburua aurreko urteko denbora jaistea zen. Minutu bat baino gehiagotatik lortu zuenez, oso

pozik zegoen 17 urteko oñatiarra. Helmugara justu heldu zela adierazi zuen: "azkeneko bi kilometroak kostata egin ditut". Emakumeetan Nieves Zarza gasteiztarra izan zen lehena. Hainbat

proba ditu irabaziak urteetan zehar eta Arrasate-Oñatikoa ere bere palmaresera gehitu zuen.

ANTOLATZAILEAK POZIK

Arrasateko AED eta Oñatiko Laxan Euskara Elkarteak ziren probaren antolatzaileak. Orain dela 13 urte hartu zuten lasterketa honen antolakuntzaren erantzukizuna eta leloa *Jantzi kirola euskaraz!* da. Egondako parte-hartzearekin pozik zeuden. Lasterketan elkarteetako kide batzuek parte hartu zuten. Laxanetik Asier Osinaga sartu zen lehena eta AEDtik Josu Pereda.

Euskara hainbat arlotan sustatu beharra dago eta oraingo honetan kirolari egokitu zaio. Gurean jarraitzaile asko dituzten bi gai izanda, parte-hartzaileen kopurua beti izan ohi da altua halakoetan.

Lasterketaren hasieratik Asier Cuevas eibartarra irabaztera irten zen

Euskara hainbat arlotan sustatu beharra dago, eta oraingo honetan kirolari egokitu zaio

23. ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

• IRUDITAN



ASIERRI GARAIKURRA. Maila handiko probatan emaitza onak ataritzen dituen atleta da Asier Cuevas. Arrasate-Oñati lasterketan bere maila erakutsi zuen eta garaipena berarendako izan zen. Irudian Amaiak, Laixaneko ordezkariak, lore sorta eman berri dio.



GOGOAN. Amaia Uriarte Urtaza, Mikel Urzelai Aiastui, Ane Miren Telleria Inurrategi eta Aitor Oñate Aiastui gogoan izan zituzten euren lagunek. Galdera ikur bat zeraman kamiseta urdina jantzita irten ziren, eta helmugara denak batera sartu ziren txalo zaparradapean.



TXIKIENAK. Hainbat umek parte hartu zuten egon ziren lasterketan. Benjaminek, alebinek, infantilek eta kadeteek izan zituzten euren lasterketak. Irudian Bergarako Etxabe bikiak ageri dira. Eguneko ordurik gehienak elkarrekin, eta korrika ere bai.



IRTEERA. Txistua entzun ostean, kronometroak martxan ipini eta 11,6 kilometroak egiteko prest zeuden parte-hartzaileak. Hasieratik beretik Yeray Varela denbora ona egiteko asmoarekin irten zela ikusten da argazkian. Asier Cuevas oraindik ezkutatuta zegoen, gero...

Emaitzak

LEHENENGO GIZONEZKOAK

1. Asier Cuevas (0:36:49)
2. Antonio Gomez (0:37:52)
3. Yeray Varela (0:38:04)
4. Ekaitz Osa (0:38:44)
5. Ernesto Lorenzo (0:38:50)
6. David Garcia (0:39:12)
7. Juan Antonio Soto (0:39:21)
8. Enekoitz Aizpuru (0:39:54)
9. Alberto Suarez (0:40:12)
10. Asier Osinaga (0:40:32)
11. Peio Garmendia (0:41:15)
12. Ibon Gabilondo (0:41:33)
13. Imanol Molinero (0:42:54)
14. Roberto Zurro (0:42:13)
15. Jorge Juaristi (0:42:17)
16. Bittor Erle (0:42:46)
17. Aritz Goikoetxea (0:42:55)
18. Luis Ezeizabarrena (0:43:03)
19. Jon Arantzabal (0:43:14)
20. Mikel Larrañaga (0:43:35)

LEHENENGO EMAKUMEZKOAK

1. Nieves Zarza (0:44:11)
2. Onintza Zeberio (0:49:32)
3. Ana Alzugarai (0:53:48)
4. Marije Velasco (0:54:46)

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

3. Yeray Varela (0:38:04)
4. Ekaitz Osa (0:38:44)
5. Ernesto Lorenzo (0:38:50)
10. Asier Osinaga (0:40:32)
13. Imanol Molinero (0:41:54)
14. Roberto Zurro (0:42:13)
16. Bittor Erle (0:42:46)
19. Jon Arantzabal (0:43:14)
20. Mikel Larrañaga (0:43:35)
24. Joxean Kerexeta (0:44:13)
28. Luis Mari Uribesalgo (0:44:44)
29. Ramon Varela (0:45:14)
30. Iban Dasilva (0:45:20)
31. Gaizka Asensio (0:45:29)
32. Mikel Larrea (0:45:43)

GAZTEAK

1. Yeray Varela (0:38:04)
2. Jon Ander Arregi (0:50:17)
3. Iban Perez (0:53:55)
4. Julen Arabaolaza (0:55:46)
5. Gorka Aranburu (1:04:32)

LEHENENGO LAIXAN SARIA

10. Asier Osinaga (0:40:32)

LEHENENGO AED SARIA

45. Josu Pereda (0:47:27)

• HORRELA IKUSI ZUTEN LASTERKETA PARTE HARTZAILEEK



**MIKEL I
BERGARA**

“Lagunartean irten gara eta lasai joan behar ginen arren, azkenean azkar joan gara. Ideia ona da euskara bultzatzeko horrelako lasterketak egotea”.



**GORKA ETA JOSEBA I
OÑATI**

“Ez dugu asko entrenatu eta erritmo lasaian egin ditugu ibilbideko kilometroak”, adierazi zuten Oñatiko bi lagun hauek. Gorkarendako lehenengo aldian lasterketa honetan parte hartzen zuena eta Josebak orain dela 16 urte parte hartu zuen lasterketan.



**JOSE MANUEL I
BEASAIN**

“Lagun batekin etorri izan naiz azken hiru urteetan. Oso ondo pasatzen dugu eguna, lasterketa ostean hemen gelditzen gara eta afaltzen”, esan zuen.



**IXIAR, HAIZEA, ITZIAR ETA NAHIA I
ARRASATE**

“1,8 km izan ditu lasterketak eta neka-neka eginda heldu gara helmugara. Gainera urte bat zaharra goekin korrika egin dugu eta oso azkarrak ziren. Hurrengo urtean berriro etorriko gara eta orduan gu izango gara kategoriako helduenak”.

• SENIOR MAILA

Aloñak ezin izan zuen Elgoibarkoen altuerarekin

Partiduaren kontrola kanpoko taldearena izan zen hasieratik bukaera arte



JASONE ZABALA

Saiatu ziren ofatiarrak, baina Elgoibar gehiago izan zen.

VERKOL ALOÑA

20-24

ELGOIBAR

Verkol Aloña | Guridi, Gofii (1), Suarez, Garitaonandia (1), Unamuno (5), Moreno (2), Donhabi (1), Ruiz (2), Quintas (2), Barrena (1), Orueta, Hernandez (1) eta Manuel (4).

Elgoibar | Bilbana, Arbizu (1), Eizagirre (2), Apellaniz (2), Garin (5), Debre (2), Loiola (3), Landaburu (3), Usobiaga (1), Aldazabal (1), Lizarralde (3), Zubiaurre (1) eta Jauregi (1).

Bost minuturo markagailua: 2-2; 4-5; 6-8; 10-9; 10-11; 12-14; 13-16; 16-17; 20-24.

Jasone Zabala

Elgoibarko neskek altuera handia dute, eta horrek min handia egin zion etxeko taldeari, zapatuan Zubikoan izandako partiduan.

Kopako hirugarren partidua zen zapatukoa, eta gogotsu zeuden ofatiarrak. Lehen zatia nahiko geldo hasi zuten etxeko-

ek, kanpotarren jokoa ezin gelditurik; batez ere Elgoibarkoek piboteekin egiten zuten jokoa. Behin eta berriz jasotzen zuten baloia Elgoibarko neska altuek, eta ez zuten huts egiten. Kontrerasoak ere egin zituzten, etxekoak paseetan ez baitziren oso fin ibili. Markagailuan ez zen alde handirik egon lehen zati hartan, eta Elgoibarkoak bi goleko erren-

tarekin joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatia ez zen hobeto joan.

MARKAGAILUAN ATZETIK

Bigarren zati guztian, ezin izan ziren aurretik ipini Benitoren neskak.

Lehen zatian baino aukera gehiago izan zituen bigarren honetan Elgoibarko taldeak, etxekoak inoiz baino huts gehiago egi-

ten ari baitziren paseetan, eta berriro ere kontraerasoetan ez zuten barkatzen Elgoibarko neskek.

Etxeko taldea erreazioaren bila zebilen, baina urduritasuna izan zen nagusi, ezin baitzuten aldea murriztu. Penalti jaurtiketak ere huts egin zituzten etxekoek. Azkenean garaipena Elgoibarrera joan zen.

• KADETE MAILA



AINTZANE AGIRRE

BERGARA 33 - ARRASATE 13

Erraz irabazi zuten atzo jokatutako partidua bergararrek. Joko alde-tik diferentzia handia dago bi taldeen artean, eta hori nabaritu egin zen partidu guztian. Hasierako minutuetan nahiko parekatuta ibili ziren bi taldeak, baina partidua aurrera joan ahala, Bergara agintzen hasi zen. Behin eta berriz lapurtzen zituzten baloia etxekoek, eta kontraeraso asko egin zituzten. Arrasatekoak saiatu ziren, baina ezin izan zuten ezer egin, markagailuko aldea oso handia zen-eta. Horrela, joko onik egin gabe, derbia bergararentzat izan zen.

• GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA



AINTZANE AGIRRE

GATZ MUSEOA JAKION 24 - EGIA 25

Ondo hasitakoa gaizki bukatu zuten Arrasateko gazteek. Lehen zatian nagusi izan ziren etxekoak, eta markagailuan abantaila handiak lortu zituzten. Baina donostiarrak defentsa indibidualak egiten hasi ziren zenbait jokalarirekin, eta etxekoak, erasoan jokatzeko orduan, galduta ibili ziren. Hala ere, lehen zatia aurretik bukatu zuten. Baina bigarren zatia lehenaren bukaeraren berdintsua izan zen. Gutxi-gutxika kanpokoak gerturatzen hasi ziren, eta azkenean markagailuari buelta ematea ere lortu zuten.

• LEHEN TERRITORIALA

AGR Arrasatek ez du bere azken hitza esan oraindik

BIMILA

16-28

AGR ARRASATE

A.G.

Partidu ona jokatu ez arren, erraz irabazi zuten AGR Arrasatekoek Gasteizen. Batez ere lehen zatian oso gaizki jokatu zuten, etxekoek jokoaz kutsatu eta bederatzi gol bakarrik lortu zuten sartzea. Erasoan ez ziren batere fin ibili, eskerrak etxekoak okerrago ibili ziren. Bigarren zatia hobeto hasi zuten arrasatearrek. Defentsa ona egin eta erasoan bederatzi eta hutseko partziala lortu zuten. Hor bukatu zen partidua.

BIHAR, DONIBANE

Bihar, 20:30etan Iturripen Donibaneren aurka jokatuko dute AGRkoek. Hil ala biziko partidua izango da. Irabaziz gero, berriz ere igoera postuetara hurbilduko dira eta.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA

IGOERA FASEA

Bimila-AGR Arrasate 16-28

LEHEN ETA BIGARREN

TERRITORIALA (KOPA)

Hegialde-Arrasate 22-27

Aloña Mendi Atsedena

Pulpo-Bergara 26-38

SENIOR MAILAKO NESKEN

EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Salo Elgoibar 20-24

GAZTE MAILAKO MUTILEN

GIPUZKOAKO KOPA

Gatz Museoa Jakion-Egia 24-25

Aloña Mendi Atsedena

GAZTE MAILAKO NESKEN

GIPUZKOAKO KOPA

Zarautz-Arrasate 38-5

Bergara-Elgoibar 13-32

Verkol Aloña-Zahara Kafet. 29-18

KADETE MAILAKO MUTILEN

GIPUZKOAKO KOPA

Aloña Mendi Atsedena

Bergara-Arrasate 33-13

KADETE MAILAKO NESKEN

GIPUZKOAKO KOPA

Verkol Aloña Atsedena

• BIGARREN MAILA

Maila mantentzea gertuago

Joko onik egin gabe erraz irabazi zioten Eskoriatzakoek La Salleri. Ondo aprobetxatu zuten bilbotarren jende falta Rasoren neskek

ESKORIATZA

62-45

LA SALLE

Eskoriatza | Usabiaga (10), Laborda (10), Gomez (2), Alarcia, Sebastian, Murillo (7), Etxebarria (13), Soriano, Exposito (10), Etxebarria (8) eta Romera (2).

La Salle | Olabarrieta (8), Tamayo (6), Ortega (6), Etxeandia, Imaz (9), Villaseca (8) eta Campos (8).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 15-11, Bigarren laurdena 35-22, Hirugarren laurdena 46-32, Laugarren laurdena 62-45.

Jokin Etxebarria

Garaipena zen garrantzitsuena, eta hori lortu zuten. Hala ere, joko eskasa erakutsi zuten Fernando Rasoren neskek zapatuan, batez ere lehenengo zatian.

Bilbotarrak zazpi jokalarirekin bakarrik etorri ziren Eskoriatzara, eta erritmo motela ezarri zuten partiduan, fisikoki

bukaerara ondo heldu ahal izateko. Eta etxeok, joko azkarra erabili beharrean aurkariari min egiteko, kanpokoen jokoarekin kutsatu ziren. Erasoan nahiko gaizki jokatu zuten, baloia ez zuten ongi mugitu, eta kanpokoen zonakako defentsa ez zuten erasotzen jakin izan. Bilbotarrek ere erasoan ez zuten ezer egin eta etxeok defentsa apur bat landuta, markagailuan abantaila hartzea lortu zuten.

BIGARREN ZATIA HOBETO

Hirugarren laurdenaren hasiera ere nahiko eskasa izan zen. Hala ere, laurdenaren erditik aurrera jokia bizitzen hasi zen. Bi taldeek, kontrarioek erasoan egingako hutsak aprobetxatu nahi izan zituzten kontraerasoan irteke. Etxeok taktika honekin emaitza hobekak lortu zituzten. Hala ere, abantaila ez zuten gehiegi handitu.

Azken laurdena hobeto hasi zuten etxeok. Kontraerasoen bitartez min egiten jarraitzen zuten, eta estatikoan erasotzerako orduan, baloia ondo mugitzen asmatu zuten, beti jaurti-



JOKIN ETXEBARRIA

Erasoan baloia mugitzeko arazo askotxo izan zituzten eskoriatzarrek.

keta errazen bila. Horri gehitu behar zaio kontrarioek jaurtiketa azkarren bidez eraso egin nahi izan zutela, eta ez zutela asmatu. Kanpokoen hutsarte baten ondoren aldatu egin zen hori guztia, eta bilbotarrek defentsa hobetuta, baloia lapurtzen hasi ziren eta kontraerasoan irtenda, abantaila txikitu zuten. Hala ere, beranduegi izan zen eurendako eta garaipena etxean

gelditu zen. Garaipen garrantzitsua gainera.

MAILA MANTENTZEA GEROZ ETA GERTUAGO

Amaitzeko bi partiduren faltan, eskoriatzarrek bosgarren daude sailkapenean 25 punturekin, eta hurrengoak bi puntura dituzte. Bietako partidu bat irabaztearekin nahikoa izango dute mailari eutsi ahal izateko.

• LEHEN MAILA

Mugarri Alkesak ezin azken partidua irabazi

CONSMETAL

82-68

MUGARRI ALKESA

A.G.

Historiarik gabeko partidua jokatu zuten Iruñan Gorka Zurutuzaren mutilek. Ez talde batek, ez eta besteak ere ez zuten ezer jokoan, eta denbora pasa irten ziren biak kantxara. Arrasatearrak bederatzi jokalarirekin bakarrik joan ziren, baina Jago Gamarrak, orkatilan dituen arazoak direla eta, lehen laurdena bakarrik jokatu zuen. Ongi aprobetxatu zuen Jokin Lazpiurrek hori, eta entrenatzaileak emandako minutuetan bikain jokatu zuen, Txinan emandako denboran saskibaloian jokatzeko ahaztu ez zaiola erakutsiz.

Azkenean baina, etxeok gogo gehiago jarri zuten partidua irabazteko, eta horregatik irabazi zuten. Zurutuzaren mutilek ez zuten eragozpen larregi jarri hori gerta ez zedin.

DATORREN URTEAN ALDAKETARIK EZ

Datorren urtera begira, ez dute aldaketa handiegirik espero taldean. Gazte batzuk igoko dira taldera, eta bi baja izango dituzte. Bata Jokin Lazpiurrena eta bestea Ugutz Basaurirena.

Derby parekatuan, Araneta nagusi

MUGARRI ALKESA

47-52

ARANETA

A.G.

Derbyetan parekotasuna izaten da nagusi normalean, nahiz eta sailkapenean bata bestearen gainetik ibili. Horrela gertatu zen Arrasate eta Bergarako gazteen artean ere. Bergararrak gainetik daude sailkapenean, eta horrela jarraituko dute hemendik aurrera ere. Hala ere, etxeok gogo handia jarri zuten partidua ira-

bazteko, eta mahoneroek ez zuten horren erraz lortu garaipena.

Partidua ez zen puntu askokoa izan, defentsak izan ziren eta partiduko protagonistak. Bi taldeek defentsa oso onak egin zituzten, baina bergararrak errebozetan nagusi izan ziren, eta etxeok erasoan izandako zehaztugabetasunak ederki aprobetxatu zituzten. Adibide bezala, azken minutuetan, bergararrak puntu bat gainetik zirela, etxeok lau eraso jarraian egin zituzten, markagailuari buelta emateko, eta lauretan taula azpian baloia galdu zuten.

Azkenean, gaur egun bergararrek talde hobea dutela erakutsi zuten, nahiz eta irabazteko sufritu egin behar izan zuten.



JASONE ZABALA

Taula azpian gehiago izan ziren Bergarako gazteak.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Consmetal-Mugarri Alkesa 82-68

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candy BKE-Gabi Jatetxea 64-66

Errotandi-Aloña Mendi 58-62

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-Araneta 45-52

Aloña Mendi-Goierri CAF 55-40

KADETE MAILA

Loyola A-Mugarri Alkesa 33-52

Ordizia-Lacor 51-49

Goierri B-Aloña Mendi 39-87

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-La Salle 62-45

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-San Patricio B 47-53

Eskoriatza-Salletarrak 37-49

KADETE NESKAK

Bergara-Salletarrak 38-33

Eskoriatza-BKL Caf 44-43

Piraguismoa

• GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Josu Mentxaka bigarren infantiletako K-1 mailan

Beti Bustik antolatutako txapelketan maila ona

Jon Unamuno

Bergaran jokatu zen Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa zapatuan. Santiagotarrak, Atletico San Sebastian, Koxtape eta Beti Bustiko taldeak jokatu zuten txapelketa. Azken hauek izan dira antolatzaileak eta Karmelo Iturrospe zenaren omenez antolatzen dute txapelketa.

11 mailatan jokatu zen txapelketa. Santiagotarrak taldeko piraguietek lortu zituzten txapelketarik gehienak. Beti Bustiren aldetik Andoni Arroalabarrena eta Imanol Julen Berroia egon ziren K-1eko infantil A mailan. Proba bereko infantil B mailan Josu Mentxaka egon zen. Azkenik, infantiletako C-2 proban Andoni Arroalabarrena eta Josu Mentxaka aritu ziren.

Emaitza aldetik aipatu behar da Josu Mentxakak bere mailan lortutako bigarren postua. Atle-



JON UNAMUNO

Ate desberdinetatik pasa beharra izan zuten piraguietek.

tico San Sebastian taldeko Paulo Garikano. C-2 proban ere Gipuzkoako txapeldunak izan ziren Andoni eta Josu, baina eurak bakarrik irten ziren proban. Taldeka hirugarrenak izan

ziren Beti Bustikoak. Bete-betean dago sartuta Beti Busti Euskadiko eta Espainiako Kopan. Emaitza oso onak lortu dituzte orain arte. Uda arte txapelketetan murgilduta egongo dira.

Labur

Sumofic taldeko Antxon Anduaga aretxabaletarrak Lazkaomendin garaipen handia lortu zuen

Gogor dabilta Sumofic taldeko txirrindulariak denboraldi honetan. Zapatuan Antxon Anduaga izan zen protagonista. Bosteko ihesaldi batean sartu ondoren, Larraitzeko igoeran ihes kide batekin bakarrik gelditu zen. Larraitzen bera pasa zen lehenengoa eta indartsuena zela ere erakutsi zuen. Lazkaomendiko aldapetan ordura artekoa erakutsi zuen eta berak jo zuen aurrera. Atzetik indartsu igo zuten, baina garaipenak ez zion ihes egin Antxon. Taldeka bigarren izan zen Sumoficek.

Berdinketarekin zaila du Eskoriatzak ligako lehenengo postua irabaztea

ZIERBENA

4-4

ESKORIATZA

A.G.

Liderraren etxean jokatu zuen atzo Eskoriatzak. Puntu baka-rrera zegoen eta irabaziz gero, lidergoa lortzeko aukera izango

lukete. Hala ere, ezin izan zen garaipena eskuratu.


Galtzen hasi ziren eskoriatzatarak, baina Patxik banakoa sartu zuen. Berrito ere aurreratu ziren Zierbenakoak markagailuan. Oraingo honetan Arturok berdindu zuen bina. Hirugarren aldiz aurreratu zen etxeko taldea eta, oraingoan, eurak sartu zuten berdinketaren gola euren atean. Zelai- ligako bi talderik onenak jokatzen zeuden eta partidua maila ere bikaina izan zen. Aitor Rome-

rok sartu zuen eskoriatzarren gola eta momentu horretan liderak ziren. Hala ere, Zierbenakoak partidua berdindu zuten eta jokoa launa bukatu zuen.

BARAKALDOREN KONTRA

Zapatuan Barakaldoren kontra jokatuko dute arratsaldeko 6etan. Etxean jokatuko duten azkeneko partidua izango da, denboraldi honi dagokionez, eta garaipenarekin eskertu nahi dio taldeak zaleei. 16:00etan Oho- rezko ligakoek jokatuko dute.

• ETB KANTXA: ELGETAKO 4 T'ERDIKO TXAPELKETA




AINTZANE AGIRRE

OIARTZABALEK ALDE HANDIZ GALDU ZUEN

Asteburu honetan ere, pilota partiduak jokatu dira Elgetako ETB Kantxako 4 t'erdiko txapelketaren barruan. Guztira 16 partidu jokatu ziren, bederatziz, 23 urtez azpikoen artean, eta zazpi kadete mailan. Elgeta eta Aramaioko pilotalekueetan izan ziren partiduak. Debagoieneko pilotariei dagokienez, bakarrak jokatu zuen partidua asteburu honetan: kadete mailan, Oiartzabal eskoriatzarrak. Urrutikoetxearen aurka jokatu zuen. Ibarreko pilotariak 2 eta 22ko emaitzaz galdu zuen.

Tenisa



AINTZANE AGIRRE

Sariak Valentin Egidazu kirol zinegotziak banatu zizkien bi tenislariari.

Debagoieneko tenis txapelketan, Abel Hernandez irabazle

Partidu gogorra izan zen, eta azken setean erabaki zen dena

Jasone Zabala

Zapatuan jokatu zuten Debagoieneko tenis txapelketako finala Bergarako kiroldegian. Irabazlea, Elgoibarko Abel Hernandez izan zen, Oñatiko Jabier Olasto hiru setetan (7-5, 5-7 eta 6-2) mendean hartu eta gero. Partidu gogorra izan zen, bi ordu eta erdikoa. Lehen setean, oñatiarrak ederki egin zion aurre Elgoibarko gazteari, eta sarera behin eta berriz igo zen puntuak ederki amaituz. Baina Abelek eraman

zuen lehen seta. Bigarren setean ere, estu ibili zen markagailua, eta Jabierrentzat izan zen. Modu honetan partidua berdindu egin zuen; hirugarren eta azken setean, Abelek ez zuen zailtasun handirik izan oñatiarra mendean hartzeko. Bero handia egin zuen partiduan zehar, eta igarri zuten hori bi tenislariak.

AURREKO PARTIDUA

Finalaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak eskuratzeko partidua jokatu zuten Juan Luis Etxaniz bergararrak eta Jose Caballero arrasatearrak. Bergararra izan zen irabazlea eta berarentzat izan zen hirugarren postua.

Aipatzekoa da aurtengo edizioan ibarreko 25 tenislari inguruk hartu dutela parte.

Javier Zubano arrasatearra saskibaloia munduan murgilduta egon da beti. Arrasaten gazte mailetan entrenatzaile, eta lehen taldeko bigarren entrenatzaile

ibili da. Gero, bederatzi urte eman zituen arbitro lanetan; Arabako arbitroen lehendakari izatera ere iritsi zen. Baina berak entrenatzaile lanak ditu gustuko.

Duela bi urte heldu zen Caja Vital Abaroa taldera, eta lan ona egiteaz gain, sariak ere jaso dituzte. Arabako kirol talde onenari sari herrikoa, besteak beste.

JAVIER ZURBANO | GASTEIZKO CAJA VITAL ABAROA TALDEKO ENTRENATZAILEA

"300.000 euroak izanda, igoera pentsatuko genuke"

Jokin Etxebarria

Arabako talde onenaren saria eman berri duzute, TAU eta Alaves bezalako taldeen aurretik. Pozik, ezta?

Sari hau bozketa herrikoi baten bitartez ematen da, eta pozik, noski. Baina baita harrিতuta ere. Azken finean, inoiz ez dakizu nola erakargarritasuna daukazu jendearengan, eta Arabako kirolarengan. Baina, egia esateko marketing kanpaina txiki bat ere egin genuen. Batez ere partiduetan eta gure Interneteko foroan. Eta harritzekoa badirudi ere, Internetez jasotako botoengatik lortu dugu saria. Jasotako boto guztien erdia baino gehiago saretik bidaliak izan ziren eta.

Denboraldi bikaina egin duzue. Igotzeko esperantzarik bai?

Igotzea ezinezkoa da. Horretarako bi arrazoi nagusi aurkitzen ditut nik. Lehena, ez gaudela igotzeko prestatuta. Eta bigarrena, klubaren planteamendu nagusia ez dela igotzea. Noski, norbait etorriko balitz, eta mahai gainean beharrezkoak izango genituzkeen 300.000 euroak jarri, ezin esango dizut ez genukeela pentsatuko. Baina argi eduki behar dugu lehen taldean jokatzeko duten jokalariek ez direla profesionalak, eta saskibaloian zaletasunagatik daudela jokatzeko. Eta gainera, klubaren filosofiarekin talka egiten du asmo horrek. Gure helburua beheko mailetan saskibaloia sustatzea da, eta lehen taldeko dirua horretarako erabiltzen dugu. Nahiago dugu lehen mailan jokatu eta beheko mailan talde bat gehiago sortzeko dirua eduki, mailaz igo eta diruz justu ibiltzea baino.

Nolatan, arrasatear bat Gasteizen entrenatzen?

Santu izateko beste herri batera joan behar delako. Nik urte asko eman nituen Arrasaten, eta bertakoa utzi nuen ez nengoelako gustura kluba hartzen zebilen filosofiarekin. Ondoren, saskibaloia munduarekin kon-

taktuan jarraitu nahi nuela eta bederatzi urte eman nituen arbitro lanetan. Eta urte horiek, gainera, birziklatu eta ikasteko erabili nituen. Kirol hau urtetik urtera asko aldatzen da, horrelako denboraldiak ondo etortzen dira ikasteko. Baina entrenatzaile lana izan dut beti gustuko, eta Abaroa taldeetik deitu zidatenean ez nuen birritan pentsatu. Gainera, klub honek nik Arrasaten bizi izan nituen urteetako filosofia berbera dauka, eta espero dut hura bukatu zen moduan ez bukatzea.

Neska talde honetaz gain, mutilen talde asko entrenatu dituzu. Zein ezberdintasun aurkitzen duzu?

Ezberdintasunak nabariak dira. Nire ustez ez dago konparatzerik. Gauza bat da mutilen saskibaloia eta beste bat nesken saskibaloia. Mutilena askoz ere fisikoagoa da, kementsuagoa...eta neskena, askoz ere teknikoagoa da. Hala ere, bietan lan berdina egin behar dela uste dut, biak bateragarriak direlako. Baina ezberdintasun nabariak fisikoan eta izaeran daude. Mutilak askoz ere lehiakorragoak dira, eta nesketan lehiakortasun hori mantentzeko beti izan behar duzu tentsio puntu bat.

Epaile lanetan pasatutako denbora esperientzia ona izan zen?

"Klub honek nik Arrasaten bizi izan nituen urteetako filosofia berbera dauka"

"Arrasaten klub espiritua galdu zen. Gehiegi profesionalizatu zen taldea"



Javier Zubanok Arrasateko Portaloian egin zigun harrera.

JOKIN ETXEBARRIA

Egia esateko niri gehien gustatzen zaidana entrenatzaile izatea da. Epaile izatearena trantsizio etapa bat izan zen. Saskibaloia munduan jarraitu nahi nuen eta entrenatzaileok gehiegi maite ez dugun lanbide bat barrutik ezagutu nahi nuen. Nahi nuena esperientziaz zena. Asko ikasi nuen nire irakasleetatik eta esperientzia polita izan zen niretzat.

Arrasaten egon zen saskibaloia boomaren ondoren zaletasuna asko jaitsi da. Zer egin zen gaizki, eta zertan hobetu daiteke?

Beti ere nire irizpidea dela kontuan hartuz, klub espiritua galdu zela uste dut. Taldea gehiegi profesionalizatu zelako galdu zen. Azkarregi hazi zen kluba eta hura mantendu behar zutenek ezin izan zuten lan horrekin. Horrez gain, nire ustez, egindako okerririk latzena harrobia bertan behera uztea izan zen. Hori da hobetu behar dutena.

Gaur aurkeztuko dute Arrasateko emakumeen lehen mailako torneo

Maiatzaren 15ean Arrasaten emakumeen saskibaloiko lehen mailako lau talderen artean txapelketa egingo da lehen aldiz. Bertan punta-puntako lau talde egongo dira: Javier Zubanok berak entrenatzen duen Caja Vital Abaroa gasteiztarra, AT. San Sebastian eta Belfast I. T. donostiarrak eta Getxo taldea. Arrasaten dagoen emakumezkoen kirol urria sustatu nahi dute ekintza honen bitartez. Javier Zubanok berak horrela zioen: "Egiten diren gauza guztiak ondo daude. Zaila da, hala ere, nahikoa izatea. Kontuan hartu behar da Arrasateko gizartea horretarako guztiz matxista dela, bai kirol mailan, bai lan mailan... Nire ustez ideia ona da, arrasatearrek ikus dezaten badaudela beste toki batzuk non emakumeak lehiakorrak diren, baina nahikoa ez dut uste. Politena horrelako gauzak geroz eta gehiago egitea izango litzateke. Baina horretarako lan egin behar dutenek, bada, lan egin behar dute, eta bi kale berritu gabe utzi behar badira horrelako gauzak antolatzen, agian hori egin beharko da". Arrasate Hiriko Lehen Txapelketa emakumezkoen lehen mailan gaur aurkeztuko da Monterron jauregian eguerdiko 12:00etan.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Arrasateko Corazon de Encina elkarteak atzo agurtu zuen Kultura Astea | 24
- Bergarako Esan! musika taldeak egubakoitzean egin zuen estreinako kontzertua | 25

Aitor Agirre
Arrasateko
Jukebox taldeko
kidearekin lehen
diskoaz aritu gara | 26

BERGARAKO IDAZLE ESKOLA



AINZANE AGIRRE

Maiatzaren bukaeran bukatuko dituzte eskolak bigarren mailakoek eta ekainaren hasieran lehenengokoek.

IDAZLE ESKOLA | BIGARREN IKASTURTEA BUKATZEKOTAN DA. AURTEN IKASLEEN LANAK ARGITARATZEKO AHALEGIN BEREZIA EGIN DUTE

Euskal Herri osoko 60 bat ikasle ari da Bergaran, zapaturo, 'luma zorrozten'

Bigarren urtea du Idazle Eskolak Bergarako UNED zentroan. Euskal Herri osoko 60 bat ikasle ari dira zapaturo, euskaraz idazteko –arlotan literario eta profesionalean– gaitasuna sendotzen

Monika Belastegi

Atsedenaldirako gutxi falta zitzaizela, 11:30 aldera, iritsi ginen Bergarako UNED zentrorra zapaturoan, Idazle Eskolako ikasleengana. Tere Irastortzak, zuzendariak, lagundu gintuen hirugarren solairura eta bat, bi eta hiru geletan aurkeztu. Izan ere, hiru gelatan banatuta daude Idazle Eskolako 60 bat ikasleak: lehenengo mailan gela bat eta bigarrean bi; bata, literatura espezializaziokoa eta bestea, administrazioa-dibulgazioa espezializaziokoa.

Lehenengo mailakoak Jon Alonso irakasleak testuaren ikuspegi narratiboaz esateko zituenak entzuten zeuden. Bigarren mai-

lakoan kasuan, gela batek Joseba Lozanorekin puntuazioaz ziharduen, eta puntuazio bidez ze zuzenketa egin behar diren aztertzen; beste gelan, euskal testuen gaineko azalpenak ematen ari zen Gerardo Elortza oñatiarra.

LUMA ZORROZTEN

Bi urteko graduondokoa da Idazle Eskolak eskaintzen duena eta helburu garbia du: sormena lantzea, euskal ereduak lantzea eta itzulpen gintza bidelagun hartzea –ez haren morroi edo neskame izatea–.

Tere Irastortzak azaldu digunez, lehenengo ikasturtean “ikasleari idazteko metodologia ezartzen saiatzen gara, baliabideak sortzen, norbere etorria osatzen”.

Bigarrean, berriz, “generoak eta alderdi teknikoak lantzen dira eta nor bere espezializazioa hartzen du: idazketa literarioa edo profesionala”.

Sormena lantzea eta euskal ereduak lantzea ditu helburu Idazle Eskolak

Ikasleen sorkuntza bultzatzeko 6.000 euroko beka sortu dute aurtan

Horretan guztian, hamar bat irakasle dihardute, besteak beste, Jon Alonso, Tere Irastortza, Joseba Lozano, Unai Elorriaga eta Juan Martin Elexpuru.

Idazle Eskolak bultzatzen duen beste ezaugarri bat ere azpimarratu nahi du Irastortzak: “Idaztea langintza pertsonala den arren, ez da isolatua. Lantaldea garrantzitsua da eta eskolan ikusten dute norbera kateatu daitekeela beste batzuekin idazteko”.

SARIA LAN ONENENAKO

Aurtengoan ikasleen lanak argitaratzeko ahalegin berezia egin du Idazle Eskolak: besteak beste, 20-25 orriko lan onenen artean 6.000 euro banatuko dituzte saritan ikasturte bukaeran.

BERGARAKO IDAZLE ESKOLA

TERE IRASTORTZA | IDAZLEA ETA IDAZLE ESKOLAKO ARDURADUNA

“Gure hezkuntza sistemak ez du idazten irakasten”

M.B.

XIX-XX. mendeetako erromantizismo neurritz kanpo-koak kalte egin dio idazle lanbideari Irastorzaren esanetan. Inspirazioa gainbaloratuta dago: idazten ere ikasi egiten da.

Zer nolako ikasleek dihardute idazle eskolan?

Gehienak, adinez, 25 urtetik gorakoak dira, beraz, ikasketak amaituta dituzte eta Euskal Herri osotik datoz, nahiz eta %70 Gipuzkoatik datorren. Bestalde, gehienak emakumezkoak dira, irakurle gehienak bezala, eta idazten duten asko bezala (ez argitaratzen duten gehienak bezala).

Eta letren arlotik datozenak dira?

Kuriosoa da nola jende asko eskolan eskaintzen dugun literatura adarrera bideratuagoa dagoen zientziak ikasi ondoren. Bestalde, filologia eta halakoak ikasi duen jende askok administrazioa-dibulgazioa adarrean eman du izena. Horrek erakusten du gure hezkuntza sistemak gehiegi bereizten dituela bi adarrak eta ziurrenik, ez letretan eta ezta zientzietan ere idazten ez dutela erakusten.

Ikasleetako hainbatek lanak argitaratuta ditu honezkerok.

Bai, bai komunikabideetan, baita liburuak ere. Beste batzuk, berriz, literatura sariak jasotakoak dira, neskak batik bat. Emakumeen kasuan ikusten da zaletasuna badutela, baina euren profesionaltasuna jorratzeko esfortzu handia egin behar izan dute: emakume izatea beti plus bat da lana bilatzeko orduan eta horregatik zaletasuna baztertuago laga dute. Baina behin lana izanda, berreskuratu egin dute zaletasuna. **Zergatik aukeratu zenuten Bergara Idazle Eskola egiteko?**

Beste gauza batzuen artean Bizkaiko jendearendako hurbil geratzen delako. Nik uste sozio-



M.B.

logikoki idazle gehienak gipuzkoarrak izan direla, nahiz eta gaur egun Bizkaian ere idazle asko sortu den. Egoera soziolinguistikoaren errainua da.

Zein puntura arte ikas daiteke idazle izaten?

Askotan erabili dudana adibidea jarriko dut: musika konpositore gehienek armonia ikasi dute.

“Euskal Herri osoko ikasleak daude, baina gehienak Gipuzkoatik datoz: %70

“Bergaran jarri dugu eskola Bizkaitik gertu dagoelako; hangoak ere etor daitezten”

XIX-XX. mendeetan literaturaren iraultza izan zen, erromantizismo neurritz kanpokoak, non arauak ez zuten ezertarako balio, inspirazioak, aldiz, bai. Horrek inspirazioa gainbaloratzea ekarri du eta kalte egin dio idazle lanbideari.

Bestalde, komunikabideek eta gehien saritu duten idazlea izan da arraroa, berezia, inspiratua. Baina, aldiz, idaztetik bizi den jende gehiena ez da halakoa. Hori guztia gure kalterako izan da eta uste dut euskara bezalako hizkuntza batendako garrantzi handikoa dela konturatzea idazten ikasi egiten dela, genero asko daudela eta ez guztiak literarioak. Hiperesperimentaziora bultzatutako literatura bideratu dugu.

Iaz hasi zineten. Orduan hasi ziren ikasleak bigarren ikasturtean daude. Garapena nabarituko duzue?

Seguruago sentitzen dira eta batzuek pena ere badute bukatzen delako, bai ikasi dutenagatik eta baita harreman handia sortu delako ere ikasleen artean.

• ZERGATIK EMAN ZENUEN IZENA ESKOLAN?



ASIER IRIONDO | LEGAZPI
2. MAILA (LITERATURA)

“Batik bat nire burua idaztera eta irakurtzera behartzeko eman nuen izena eta irakasle-entzuzko teknikak eta esperientziak ezagutzeko. Hemen nagoenetik sekula baino gehiago idatzi dut. Ez nukeen horrenbeste idatziko etorri izan ez banintz, eta, gainera, gogoeta gehiago ere egiten dut idazteko orduan. Bestalde, EMUNEN egiten dut lan eta lanerako ere balio izan dit; itzulpenak egiteko, esaterako”.



MAIDER SUKUNZA | IRUÑA
2. MAILA (ADMINISTRAZIOA)

“Euskal filologia ikasi dut eta ikasketak osatzeko asmoz eman nuen izena. Gainera, itzulpen-gintzan dihardut eta lanean sumatzen nituen hutsuneak osatzeko baliagarri egin zait. Ez dut nire burua idazle moduan ikusten; literatura espezializazioa baino, administrazioa-dibulgazioa praktikoagoa iruditzen zait. Hemen nagoenetik, hitz egiterakoan gehiago erreparatzen, dut nola esaten ditudan gauzak”.



MIREN AZKARATE | BERGARA
1. MAILA

“Literatura gogoko dut; gehiago irakurle moduan idazle moduan baino, baina idazten ere saiatu nahi nuen, barrukoak paperera ekartzen, azken batean. Unibertso literarioa oso gustuko dut eta baita ikasledeen artean sortzen den giroa ere. Oso pozik nago izena eman izanaz. Dagoeneko hasi naiz gauzatxoren batzuk idazten, baina oraindik ez naiz gehiegi ausartzen”.



ITZIAR TATIEGI | OÑATI
2. MAILA (ADMINISTRAZIOA)

“Hirugarren umea izan eta gero etxean geratu nintzen eta baneukan gogoia graduondoko zerbait egiteko, denbora libre nire burua janzten emateko. Lasai etortzen naiz eskolara eta oso gustuko dut. Gainera leku askotariko jendea etortzen da eta irakasleez gain ikasleek ere asko aportatzen dute. Bestalde, guztiok ditugu zalantzak eta hori dela ikustea oso ona eta lagungarria da”.

• IDAZTEKO ERE TALDE LANA GARRANTZITSUA DA



HARREMANA SENDOTZEA. Ikasleen arteko harremana finkatzea, sendotzea oso garrantzitsua dela diote eskolaren arduradunek. Ikasleen arteko harremana sendotzeko bidean eskolaz kanpoko aisialdi ekintzak ere egiten dituzte. Hilaren 28an, esaterako, bazkaria egingo dute Elgetako Espalioa kafe antzokian.

Ikasleen lanak hainbat mediotan

Ahalegin berezia egin du aurten Idazle Eskolak ikasleen lanak argitaratzeko. Iaz L. Luma Berrien eleak aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zuten eta aurten, bat beharrez bi aterako dituzte. Lehena joan den astean kaleratu zuten eta bertan ikasleen testuak irakur daitezke. Bigarrenak, irail aldera ikusiko du argia.

Horrez gainera, ikasleak Gara egunkariak asteburuetan kalera-tzen duen Mugalari gehigarriko kolaboratzaileak ere badira. Astero ikasleetako baten lana argitaratzen dute.





CORAZON DE ENCINA ELKARTEA | KULTURA ASTEA ITXI ZUTEN ATZO

Antolatzaileak pozik Extremadurako Kultura Asteak izan duen erantzunarekin

Non. Arrasateko Corazón de Encina elkarteak.
Ekitaldiak. Musika emanaldiak, dantza saioak, karaokea eta beste hainbat.
Iraupena. Zortzi egun.

Monika Belastegi

Arrasateko Corazón de Encina Extremadurako elkarteak atzo, domeka itxi zuen Kultura Astea. Aurreko domekan hasi zuten astea, ohorezko erregina aukeratu, eta atzora bitartean ekitaldi ugari egin dituzte elkarte-kideendako zein bertaratu nahi izan duen guztiendako.

Astean barrena umeendako ekitaldiak izan dituzte, batik bat: marrazki, margo, futbolin, tortilla, poesia eta idazlan lehiaketak, besteak beste.

ASTEBURUA NAGUSIAGOENDAKO

Asteburuan, nagusiagoendako ekitaldiak egin dituzte. Eguba-

koitzean, esaterako, jende asko hurbildu zen Ernesto Rodriguez adituak Extremadurako ibilbide turistikoaren gainean egindako hitzaldira eta ez zen jende gutxiago izan Los Chambras taldeak egindako musika emanaldian.

ANTOLATZAILEAK POZIK ERANTZUNAREKIN

Corazón de Encina elkarteak arduradunek balorazio oso positiboa egin dute asteaz "bai antolatutako ekitaldiek aurrera egin dutelako inongo arazo barik eta baita jende ugari parte hartu duelako ere. Zapatuko afarian, esaterako, 75 lagun batu ginen" azaldu dute.

Zapatuko afarian 75 lagun inguru batu ziren Corazón de Encina elkarteak



ANTZUOLAKO TOPONIMIA LANA | EGUENEAN AURKEZTU ZUEN KRISTINA PAVOK

Egunean, Antzuolako Olanan etxean Antzuolako leku izenekin egindako toponimia lana aurkeztu zuten. Kristina Pavo (ezkerrekoa) antzuolarrak egin du lan hori Antzuola Ikerketa Bekaren bidez, eta egileak berak aurkeztu zuen eguneko ekitaldian.

Antzuolako baserrien izenak, txabolenak, ermitenak, lursailenak, mendienak, auzoenak, erreke-

nak, iturrienak eta beste hainbat jaso ditu Pavok lanean eta horiekin liburu osatu du. Horrekin batera, mapaz lagunduta dago liburuak, irakurleak izen bakoitza kokatzeko. Horretarako, Iñigo Ramirez de Okarizek bere garaian egindako mapa erabili du eta hura osatu. Guztira 1.700 lekuren izenak jasotzen ditu liburuak. | A.G.

ITALIARRAK ETA DONOSTIARRAK BERGARAN



AINZANE IRIZAR

ERRITMO BERRIAK BERGARAKO GAZTETXEAN

Ez dira ohiko izaten gaztetzearan funk amerikar doinuak. Agian horretatik, egubakoitzean ez zen jende askorik animatu Bergarako gaztetzearan antolatutako kontzertura. Milandik etorritako Minies eta Donostiatik gerturatutako Hotel (argazkikoak) taldeak aritu ziren gaueko 11etatik goizaldeko ordu batera arte.

Zapatuan, ostera, goizaldeko 4ak arte jendez gainezka egon zen Bergarako gaztetzeara. Suspenders, Oi Kobras eta Kalekumeak taldeek ere zuzeneko polita eskaini zuten eta gaztetzeara herriko eta kanpotik etorritako jendez bete zen.



gure bizitzako eskaintzarik onenak

Costa del Sol 205€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
05/15etik 06/3ra. 8 egun - 7 gau. El Puerto hotela***. Mantenu erdia. 34.109 Pta

Benidorm 220€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
05/etik 06/3ra. 8 egun - 7 gau. Royal hotela***. Mantenu osoa. 36.605 Pta

Jaca 65€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
05/1etik 06/16ra. 06/19tik 07/2ea. 8 egun - 7 gau. Altur 5 apartamentuak. 6 lagunentzako apartamentua. 10.815 Pta

Tenerife 303€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
05/1etik 06/19ra. 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Catalonia Oro Negro hotela***. Mantenu erdia. LEHEN HAURRA DOHAINIK. 50.415 Pta

Mallorca 173€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Son Duy hotela**. Mantenu erdia. 28.785 Pta


Londres 268€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 3 egun - 2 gau. Hegazkina. Turista hotela. Gosariak barne. 44.591 Pta

Roma 339€ Oinarritako prezioa pertsona bakoitzeko
Maiatza. 3 egun - 2 gau. Hegazkina. Hotela***. Gosariak barne. 56.405 Pta



EROSKI viajes
merezi duzu
www.viajeseroski.es

• DARIO FO IDAZLEAREN 'KANANGO EZTEIAK' ARRASATEN



AINTZANE AGIRRE

BAKARRIZKETA 3.60 ARETOAN

Jendeak barre egin zuen bariku iluntzean Kepa Gallego antzezleak 3.60 aretoan taularatutako *Kanango Ezteiak* bakarrizketarekin. Dario Fo idazlearen *Misterio de Bufo* izeneko testuan oinarritutako lana izan zen, non pertsonaia mozkorti batek bere mozkorraren zergatia azaldu zuen. Kanan deritzon lekuan ezte batzuetara gonbidatu zuten, eta emaztegaia, senargaia, emaztegaiaren ama zein aita negarka, irainka eta ostikoka topatu zituen. Zergatik? Ardo upel oso bat, ezteietarako gordeta zegoena, ozpindu egin zelako! Gauzek ez zuten onera egin Jesukristo izeneko bat atetik sartu zenean.



ANTZERKIA | 'QUIERO SER NORMAL' BAKARRIZKETA

Esperpentoa bizirik dirauen generoa da Elgetan argi ikusi ahal izan genuenez

Non. Elgetako Espaloian.
Aktorea. Joan Simon.
Iraupena. Bi ordu eta erdi aritu zen.

Larraitz Zeberio

Joan Simon 41 urteko antzezleri kataluniarrak emanaldi oso esperpentikoa egin zuen Elgetan bariku iluntzean. Deskriba gaitza guztiz.

Agertokiak trasteleku itxura hartu zuen, hasieratik beretik dena bete zuen-eta ezin erabilizko tresnekin. Kartoi zaharrak, arropa zulatuak, hautsez betetako mantak...

Bakarrik aritu zen kataluniarra agertoki gainean eta hainbat famatu imitatzeaz gain bere uztako beste hainbeste pertsonaia ere aurkeztu zituen Elgetan. Nor baino nor bitxiago. "Gure

gizartean integratzea ez da erraza", esan zuen Joan Simonek. "Asko ahalegintzen dira pertsona batzuk ikerketa estadistikoek normalizat jotzen dituzten eredueta hurbiltzen, baina ez da erraza".

PERTSONAIA ESZENTRIKOAK

Joan Simonek Espainiako Erregea imitatu zuen, baita Joan Paulo Aita Santu ohia zein bere ordezko Benedikto XVI.a ere.

Ondotik etorri ziren bere uztako pertsonaia esperpentikoak. "Ni artista nintzen", adierazi zuen hasieran. "Gizarteak, ordea, ez zuen nire lana ulertu

eta beste lanbideetan hasi beharra izan nuen. Mormoia, zorne eta muki bilketan amorratua den exekutiboa, *Poco Zumo* alderdi politikoko ordezkarria... Kritika sozial handiko ikuskizuna izan zen baina, batez ere, oso esperpentikoa. "Nondik atera da tipo hau?", izan zen ikusleen lehen berba emanaldia amaitutakoan.

TELEFONO PORNOAK

Amaieran Simonek zuzeneko deiak egin zituen egunkarian topatutako telefono pornoetara. Ikusleek gustura egin zuten barre antzezleak eragindako elkarriketak entzunda.

• ESAN! TALDEA BERGARAN



A.G.

LEHEN KONTZERTUA EGIN ZUTEN ARRANO TABERNAN

Bergarako Esan! laukoteak estreinako kontzertua egin zuen egubakoitzean Bergarako Arranon eta taberna bete egin zuten, gainera. Ibai Romerok (ahotsa), Xabier Payrosek (baxua), Ekaitz Aranbarrik (gitarra) eta Aritz Ernabidek (bateria) osatzen dute taldea. Oil, rock and roll eta ska doinuak egiten dituzte eta euren abestiez gain (euskaraz) Toy Dolls eta Peter And The Test Tube Babies bezalako taldeen bertsioak ere egiten dituzte. Horren guztiaren adibide izan zen egubakoitzeko emanaldia. Zapatuan beste kontzertu bat egin zuten Elgoibarren, Gaztetxeen aldeko jainan.

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urte 1 era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate
Prebentzio eta Laguntza
Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3,
2-3.atea
EGUNAK
Maiatzaren 25 eta
ekainaren 1, 8, 15, 22.
ORDUA
10:30etatik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTRUAN
943 77 08 05



0000 km

Mondeo
C-Max
Fiesta

Haxe
da
aukera!

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es



gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

LAN ESKAINTZA

Bergarako
Deportibo tabernak,
**SUKALDARIA
ETA
ZERBITZARIAK**
behar ditu.

Interesatuok deitu:
629 26 88 51

Aurrerantzean Jukebox taldea sarriago entzuteko aukera izango dugu. Bi kide gaixo egon dira luzaz eta agertokietatik urrun ibili dira azkenaldian. Amaitu da gaixoaldia.

Zapatuan Oñatiko gaztelekuan ikusi ahal izan genuenez, osatu dira eta gogor datoz gainera. *We only wanna rock* da Arrasateko Jukebox taldearen lehen diskoaren izena.

Otsailean kaleratu, baina hiru kontzertu besterik ez dituzte eman. Rock klasikoa dute gustuko. Bertsioak egiten onak dira. Orain euren uztako hamar kanturekin datoz.

AITOR AGIRRE | JUKEBOX TALDEKO ABESLARIA

"Aurrerantzean kontzertu gehiago eman nahi ditugu gure lehen diskoa ezagutarazteko"

Larraitz Zeberio

Lau urte elkarrekin. Hasieran talde ezagunen bertsioak egiten. Gero zuen uztako kantuak jotzen. Nola deskribatuko zenituzke lau urte hauek?

Uste dut talde guztien prozesua egin dugula eta nahiko azkarra izan dela. Pozik gaude, dena bere momentuan egiten ari garela uste dugu. Aretxabaletan eman genuen lehen kontzertua. Gero ni Irlandara joan nintzen, Txiskok ere urtebete egin zuen taldetik kanpo. Denak elkartzea zoragarria izan zen. Diskoa grabatu eta esku artean edukitzea ere bai. Ondo ari garela uste dut.

Rock and Roll talde gutxi dago Arrasaten. Jarraitzailerik bada?

Ez dut uste hain talde gutxi daudenik. Badaude taldeak eta oso jende gaztea da gainera, 16-18 urtekoak. Nik uste dut, Donostia aldetik iritsi den rock klasikoko talde horien musikak, Nuevo Catecismok esaterako, euren eragina izan dutela Arrasateko gazteengan. Gainera, talde hauek erreferentzia asko zeukaten. Antzina-koa, Rolling Stones, Ramones... Uste dut musika hori jaso dugula tabernetan eta lagun artean. Hortik, agian, rock klasikoaren berpizte hau. Talde asko atera dira. Batzuek aurrera egingo dute, beste batzuek ez, baina nik uste ona dela giro hori sortu izana.

Otsailaz geroztik esku artean dugu *We only wanna rock* diskoa. Denboratxo bat pasatu da. Gustura emaitzarekin?

Diskoarekin oso gustura gaude. Gertatzen da duela urtebete grabatu genuela eta editatu arte denbora asko pasatu dela. Guk

dagoeneko oso entzuna daukagu. Baina gustura gaude ikusten dugulako jendeak entzuten duela. Hurbiltzen zaizkizu kritikak egiteko, onak eta txarrak. Niretzat hori oso garrantzitsua da. Jendeak gure musika entzutea eta euren ahotan egotea.

Kritika interesgarriak izaten dira? Ondo hartzen dituzue?

Nik bai. Ahoz ahoko kritikak izaten dira, gainera. Kritika txarrak ere entzutea oso ona da hurrengo batean hobeto egiteko.

Arrasaten nolako harrera duzue?

Nire ustez, ona. Kontzertuak egiten ditugunean jende asko etortzen da entzutera. Gazteak zein rockero zaharrak. Belau-naldi ezberdinak ikusten ditugu eta hori eskertzen da.

Kontzertu agenda zer moduz?

Diskoa kaleratu ostean kontzertu bat eman genuen Arrasa-

ten. Duela bi aste Bergarako gaztetxean egon ginen eta Oñatiko hau gure hirugarren kontzertua da diskoa kaleratu genuenetik. Neumoniarekin egon da Txisko eta ni berriz sinusitiak jota. Hiru kontzertu bertan behera utzi behar izan ditugu. Aurrerantzean gure asmoa ahalik eta kontzertu gehien ematea da. Astebururo bat, ahal izanez gero. Iku-siko dugu.

Erraza egiten zaizue kontzertuak lortzea?

Badago zirkuitu klasiko bat, Oñatiko Gaztelekua, gaztetxeak eta taberna batzuk, non oso erraza den kontzertuak lortzea.


Gero, areto handietan jotzeko, gauzak bestelakoak dira. Kontaktuak behar dituzu edo beste talde batekin jotzea lortu behar duzu...

Zein musika entzuten duzu? Beti rock and rolla?

Ez, musika estilo asko entzuten ditut. Bai nik zein taldeko gainerako kideek. Nahiko zabalak gara zentzu horretan. Blues, country, heavy-metal... Egia esan gehiena rockaren ingurukoa, baina Frank Sinatra ere entzuten dut suertatzen bada.

Hurrengo diskorik etorriko da edo lehenengoarekin zabilzate oraindik buru-belarri?

Hasiak gara kantu berriak egiten, baina poliki. Aurrerantzean kontzertuak eman nahi baditugu, prestatu egin behar ditugu emanaldi horiek eta orduan denbora gutxiago gelditzen zaigu kantu berriak sortzeko. Baina ari garela esan daiteke. Ideia asko ditugu eta hor gabilta gure saiakerak egiten. Astean hirutan elkartzen gara,



Aitor, Jukebox taldeko abeslaria.

LARRAITZ ZEBERIO

"Arrasaten ez dira gutxi sortu diren rock talde berriak. Gehienak, gainera, oso jende gazteak osatutakoak dira"

"Hasiak gara kantu berriak sortzen. Bertsioekin egin ginen ezagunak, baina gure uztako abestiekin ari gara"

eta prestatu beharreko kontzerturik ez badaukagu kantu berriak lantzen arituko gara.

Erraza izan zen bertsioak jotzea alde batera utzi eta uzta propio-ko kantuak egiten hastea?

Diskoa atera baino lehen gure uztako zenbait kantu sartzen

genituen gure kontzertuetan. Jendeak ez zituen desberdintzen eta uste zuten bertsioak zirela. Hori ez zegoen batere gaizki. Seinale ona zen. Orain ezagutu egiten dituzte gure kantuak eta abestu ere bai. Oso pozgarria da hori edozein talderendako.

Jukebox taldearen rock indartsua gure artean da berriro ere

Bergarako Iker el poeta volador kantautorearen ondotik jo zuen Arrasateko Jukebox taldeak. Kontzertua zapatuan egin zen Oñatiko gaztelekuan. Diskoa argitaratu ondotik taldeak eman duen hirugarren emanaldia, hain zuzen ere.

Indartsu ikusi genuen boskotea hasieratik beretik, eta berdin jarraitu zuten ordu eta erdi luzatu zen kontzertuan.

Aitor (ahotsa), Brian (gitarra), Zuhaitz (gitarra), Enaitz (bateria) eta Txisko (baxua) ondo aritu ziren taula gainean, gogoz. *We only wanna rock* diskoko hamar kantuak jo zituzten; tartean, nola ez, diskoari

izena ematen dion *Only wanna rock* kantua. Denak euren uztakoak.

Jukebox taldeak, ordea, rock bertsioak joaz ezagutarazi zuen bere burua, eta Oñatiko kontzertuan hainbat entzuteko aukera izan genuen. Aipatzekoa Zuhaitzek abestutako Jimi Hendrixen *Fire*.

Gaztelekuan giro polita sortu zuen boskote rockeroak bertan bildutako rock jarraitzaileen artean. Arrasate eta Bergarako jendea ikusi genuen bertan, eta baita Oñatiko inkondizionalak ere.

Aurrerantzean Jukebox taldea gehiagotan entzuteko aukera izango dugu. Hori da behintzat boskotearen nahia.



Hitzaldi entretenigarri bat eta zeruaren behaketa, Ilatargi Taldearekin

Fenomeno paranormalen egia eta gezurren gaineko hitzaldi teoriko-praktikoa egingo du kazetari aditu batek

Leire Kortabarria

Debagoieneko Ilatargi Astronomia Taldeak bi ekintza erakargarri antolatu ditu datozen egunotarako, betiere zientzia, dibulgazioa eta entretenimendua uztartzeko moduan. Bergarako jaien aitzakia aprobetxatu dute horretarako, baina ekintzak, beti bezala, zabalik daude debagoiendar guztien dako.

Alde batetik, bihar, martitzena, hitzaldi teoriko-praktiko bat antolatu dute: *Fenomeno paranormalen egia eta gezurrak*, Luis Alfonso Gamez kazetariaren eskutik. "Hitzaldi entretenigarria izango da, eta hizlariak alde praktikotik joko

du, gelan bertan esperientzia praktiko batzuk eginez", diote antolatzaileek. Berbaldia Bergarako kultura-etxean izango da, 19:00etan.

Luis Alfonso Gamezek hainbat komunikabide ezagunetan idazten ditu artikuluak. Kazetari horretaz gehiago jakin nahi dutenek bere blogera jo dezakete, *Magonia* izenekora (*magonia.blogspot.com* da helbidea). Zenbait misterio edo fenomeno paranormal ikuspegi eszeptikotik lantzen ditu han.

TELESKOPIOAK

Bigarren ekintza bat ere antolatu du Ilatargi: obserbazio publikoa. Hau da, bi teleskopio ipiniko dituzte Bergarako Seminarioan egunean, hilak 12, 21:30ean, zeruko objekturik eta fenomenorik politenatariko batzuk ikusteko aukera emateko nahi duenari. Saturnoren eraztuna, Jupiter eta bere sateliteak, ilargia... ikusteko modua izango da, hori bai, eguraldiak laguntzen badu. "Esperientzia positiboa bada, ekainean Arrasaten errepikatzeo asmoa dugu", dio Ilatargi.

Labur

Gerraren gaineko bi film intimista, egunotan Oñatin eta Arrasaten

Gerraren inguruko istorioak, pertsona arruntek bizi izandakoak, horiek dira asteen emango dituzten bi filmen gaiak.

Las tortugas también vuelan filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin. Kurdistango herrirka baten dago girotuta. Ume batzuk sinistuta daude AEBren eraso hasteko zorian dagoela.

Eguenean, hilak 12, *Domicilio privado* emango dute Arrasaten, 20:30ean. Palestinar familia batek israeldar gudariek bizi izan beharko du etxe berean.

Jon Arretzek 'Griot' Afrikaren gaineko liburua aurkeztuko du

Griot (Elkar) bidaia liburua aurkeztuko du Jon Arretxe idazleak egunean, hilak 12, Aretxabaletako udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi elkartearen eskutik. Afrikaren inguruko liburua da, eta kontakizun hunkigarriak, tristeak eta alaiak batzen ditu.



Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek Elgetan estreinatuko dute euren bira

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo hirukoteari jarraipena emateko jaio da Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior taldea, eta Elgeta aukeratu dute *Mirri-Tel* antzerki lana estreinatzeko. Etzi, eguaztena, estreinatuko dute lan hori Elgetako Espaloia antzokian, 17:30ean.

50 minutuko ikuskizuna egingo dute, esketzak, abestiak eta bestelako emanaldiak uztartuz. Handik aurrera, asmoa da Euskal Herriko hainbat tokitan egitea ikuskizun hori.

Hitzorduk

AROTEGI ARETOA | Eguenean zabalduko dute Bergarako aretoa eta Abdon Juaristiren antologia

Aroztegi erakusketa aretoa inaurratuko dute datorren egunean, hilak 12, Bergaran. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. Pazko jaien atari egunak aukeratu dituzte inauguraziorako.

Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa antologikoa zabalduko dute egun berean. Erakusketa ekainaren 12ra bitartean izango da zabalik. Batik bat, 1970etik hona margotutako lanak dira, hainbat estilo eta formatutakoak.

Horrez guztiaz gain, areto barruan dago, jendaurrean, Aroztegi etxeko ate nagusia, XVI. mendekoa. Zaharberritu egin dute eta orain ikusteko moduan jarri dute areto barruan.



ZINEMA |

• *Million dollar baby* filma emango dute Arrasaten
Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Gaur ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera. Clint Eastwood-ek zuzendu eta protagonizatzen du eta lau Oscar sari irabazi zituen.
• *Misteriosa obsesión* filmaren emanaldia Elgetan
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

LEHIAKETAK |

• *San Juan jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa*
Lehiaketan esku hartzeko azken egunak dituzue, hilaren 20a da eta mugaeguna. Debagoienean bizi edo erroldatuta dagoen edozeinek parte har dezake, 28 x 21 cm-ko irudiekin. Derrigorrezko testua honakoa da: *2005 San Juan jaiak Arrasate*. 750 euroko saria emango dute. Lanak Arrasateko udaletxera bidali behar dira.
• *Emakumeak eta Lana argazki lehiaketa Arrasaten*
Emakumeak eta Lana gaiaren inguruko argazki lehiaketa deitu du Emakume Txokoak, maiatzaren 1aren inguruan. Lanak entregatzeko mugaguna maiatzaren 13a da, Udal Emakume Sailean. 300, 250 eta 150 euroko sari bana emango dute.

• Eskoriatzako jaietako irudi lehiaketa deitu dute

San Pedro jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake 21 x 10 zentimetro karteekin. Derrigorrezko testua honakoa da: *2005eko San Pedro jaiak Eskoriatza*. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailak 1. Lanak udaletxean edo kultura etxean entregatu behar dira maiatzaren 20a baino lehen. Irabazleari 300 euro emango diote.

• *15. Portugaleta Uri Urena* ipuin lehiaketa, zabalik
16-30 urte bitarteko edozeinek parte har dezake. Gaia librea da. Lanak Portugaletako udaletxera bidali behar dira irailaren 26ra bitartean. 1.700, 1.000 eta 550 euroko sariak daude.

IKASTAROAK |

• *Eskoriatzako eta Oñatiko KZGuneetako ikastaroak*
Bi herri horietan, Internet ikastaroetan izena emateko aukera dago. Eskoriatzan, *Flashjet* ikastaroa emango dute hilaren 13an, egubakoitza (09:00-11:00). Oñatin, *Iberdrola Mikologia* ikastaroa izango da bihar, martitzena, eta postalak bidaltzeko egunean, hilak 12. Oñatin, gainera, mikroenpresendako prestakuntza ikastaroak egiteko aukera dago: produktuak eta prezioak bilatu, kontuen kudeaketa, webguneak egitekoa...

ARGITALPENAK |

• *Patxiko Txerren Txiki* liburua kalean dago
Antzuolako Patxiko Txerren sariketako ipuinekin osatutako liburua kalean da. Bederatzi ipuin batzen ditu, 1-6 mailen arteko ikasleentzat. Liburutegian dago bilduma hori.

ERAKUSKETAK |

• *Akonkaguaren gaineko argazkiak Eskoriatzan*
Akonkaguaren gaineko argazki erakusketa ipini du Aitzorrotz kultura elkarteak Inker nu tabernan. Hilaren 17ra bitartean dago zabalik.
• *Pello Alberdi margolari elgetarraren lanak*
Arrasaten du erakusketa, Arregi markoztatze dendan (Maa-lako Errabala, 8). Hamabost bat lanek osatzen dute bilduma hori. Maiatzaren 13a, egubakoitzera, da azken eguna.
• *Mireia Agirrebeña margolariaren erakusketa*
Mireia Agirrebeña margolari eibartarraren lanak ikusteko aukera dago Bergarako Nahikari tabernan, Masterreka kalean, maiatz osoan. Olioak dira, batik bat; gai aldetik, paisaiak egiten ditu.
• *Epi Pérez antzuolarrak Gasteizen du erakusketa*
Ciudad de Vitoria hotolean hainbat erakusketa du Epi Pérezek. Bakarkako lehen erakusketa du hori. Paisaiak dira, tartean Antzuolakoak.

Zorion agurrak



ARRASATE
Amaia Iturraran
Maiatzaren 1ean
18 urte.
Zorionak!
Familiakoak.



ARRASATE
Eneko Parra
Maiatzaren 8an, 3
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Familiakoak.



UDALA
Koldo Zubia
Maiatzaren 9an, lau
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Beñat Iturriotz
Maiatzaren 10ean, 7
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Etxekoen partetik.



ARRASATE
Ibai Ormaetxea
Maiatzaren 11n, 4
urte. Zorionak!
Aitaren, amaren eta
Ametsen partetik.



ARRASATE
Aitziber Soriano
Maiatzaren 12an, 20
urte. Zorionak
Txori! Lagunak eta
etxeokak.



ARRASATE
Ainhize Artetxe
Maiatzaren 13an, 7
urte. Zorionak!
Etxeko guztien
partetik.



BERGARA
Oier Uribesalgo
Maiatzaren 7an, 2
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Miren Gonzalez
Maiatzaren 9an, 8
urte. Urte askotara-
ko! Familiakoak,
bereziki Mariñe.



BERGARA
Eder Elkorobereibar
Maiatzaren 9an, 2
urte. Urte askotara-
ko! Etxekoak.



BERGARA
Irene Lopez
Hilaren 9an, 2 urte.
Zorionak eta urte
askotarako!
Gurasoak eta anaia.



BERGARA
Ane Barragan
Maiatzaren 10ean,
12 urte. Zorionak!
Jon anaia eta
familiakoak.



BERGARA
Andoni Fernandez
Maiatzaren 10ean, 4
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Jon Agiriano
Maiatzaren 11n,
urtebete. Zorionak
eta urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Angel Azkarate
Maiatzaren 12an, 83
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Unai Azkarate
Maiatzaren 12an, 25
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Mireia Ibabe
Maiatzaren 13an, 7
urte. Urte askotara-
ko! Etxekoak eta
bereziki Olatz.



OÑATI
Josu Zubia
Hilaren 4an, 11 urte.
Zorionak! Etxekoak,
bereziki, Iker, Miren,
Maite eta Naia.



ARETXABAETA
Danel Luengo
Maiatzaren 7an, 5
urte. Zorionak eta
ondo-ondo pasatu.
Eider, aita eta ama.



ARETXABAETA
Mirari Altube
Maiatzaren 7an,
urtebetea.
Zorionak, guapa!
Lanekoak.



ARETXABAETA
Ainara Vazquez
Maiatzaren 9an, 4
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Gurasoak.



ARETXABAETA
Antonio Altube
Maiatzaren 10ean.
Zorionak eta muxu
handi bat, aita!
Etxeko guztiak.



ARETXABAETA
Isasisasmendi
Maiatzaren 13an,
urtebete. Zorionak.
Etxekoak.



ESKORIATZA
Irune Urrutia
Maiatzaren 9an, 7
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Familia guztiak.



ESKORIATZA
Miren Zubillaga
Maiatzaren 12an, 8
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Etxekoak.



MARIN (ESKORIATZA)
Garbiñe Beitia
Maiatzaren 10ean.
Zorionak eta muxu
bat Maringo mutil-
zaharren partez!



ELGETA
Aitor Elkoro
Apirilaren 8an, 5
urte. Urte askotara-
ko! Gurasoak eta
ahizpa Jone.

Jaiotakoak



Lorea Garcia Carrascal
Arrasate • 3,220 Kg.
Maiatzak 2. Gurasoak: Carlos
(Lanestosa) eta Ana (Arrasate).
Argazkian: Lorea bapo lo.



Mikel Larrañaga Goiti
Bergara • 3,120 Kg.
Maiatzak 3. Gurasoak: Iñaki eta
Amaia (Bergara).
Argazkian: Mikel amaren besoe-
tan bapo lo.



Amets Jansen Urrutia
Arrasate • 2,600 Kg.
Maiatzak 3. Gurasoak: Jurrian
(Holanda) eta Iraia (Arrasate).
Argazkian: Amets amaren besoe-
tan kamerari begira.



Ilargi Legorburu Ezeiza
Eskoriatza • 3,050 Kg.
Maiatzak 3. Gurasoak: Jose Mari
eta Naiara (Eskoriatza).
Argazkian: Ilargi Maddalen
lehengusinarekin.



Iraitz Sanz Peñaranda
Aretxabaleta • 3,000 Kg.
Maiatzak 3. Gurasoak: Jose
Manuel eta M^a Carmen
(Aretxabaleta). Argazkian:
Iraitz aitaren besoetan.



Aiora Diaz Aizpurua
Oñati • 2,800 Kg.
Maiatzak 4. Gurasoak: Iban eta
Jaione (Oñati).
Argazkian: Aiora amaren
besoetan.



Malen Morras Morales
Aretxabaleta • 3,220 Kg.
Maiatzak 5. Gurasoak: Mikel
(Arrasate) eta Virginia
(Aretxabaleta).
Argazkian: Malen gurasoekin.



Anartz Almorza Arregi
Bergara • 2,740 Kg.
Maiatzak 5. Gurasoak: Iñigo eta
Edurne (Bergara).
Argazkian: Anartz amaren
besoetan.



Bittor Urteaga Vitoria
Arrasate • 2,650 Kg.
Maiatzak 5. Gurasoak: Kepa
(Zumarraga) eta Esti (Arrasate).
Argazkian: Bittor Puri
amonarekin.



Iraia Francho Gomez
Eskoriatza • 3,390 Kg.
Maiatzak 6. Gurasoak: Mariano
(Salamanca) eta Dina (Eskoriatza).
Argazkian: Iraia amaren besoetan
bapo lo.



Ekhi Astibia Getaria
Arrasate • 3,115 Kg.
Maiatzak 6. Gurasoak: Oier
(Orereta) eta Igone (Oartzun).
Argazkian: Ekhi bapo lo bere
kumatxoan.



Ainhoa Espinosa Oliva
Arrasate • 3,800 Kg.
Maiatzak 6. Gurasoak: Jose
Antonio eta Maribel (Arrasate).
Argazkian: Ainhoa ama eta aita-
ren artean lo.



Ainara Lazkano Cerdeira
Bergara • 2,870 Kg.
Maiatzak 6. Gurasoak: Jon eta
Cristina (Bergara).
Argazkian: Ainara bapo lo bere
kumatxoan.



Joseba Bermejo Mager
Oñati • 3,300 Kg.
Maiatzak 8. Gurasoak: Mikel eta
Herta (Legazpi).
Argazkian: Joseba bapo lo bere
kumatxoan.

Hildakoak

Maria Aramendi Gainza
Oñati, maiatzaren 4an. 93 urte.
Jose Cruz Murua Zabaleta
Oñati, maiatzaren 7an. 72 urte.
Miguel Biain Kortabarría
Oñati, maiatzaren 7an. 50 urte.

nolako ikasketak halako lana



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura.
 - Finantza Zuzendaritza.
 - Merkataritza Zuzendaritza.
 - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOko Campusa

- Enpresa Zientzietan Diplomatura.
 - Nazioarteko Merkataritza.
 - Enpresa Logistika eta Garraioa.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
 - Hizkuntzen Psikopedagogia.
 - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
 - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
 - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

JARDUNALDI IREKIAK

OÑATIko Campusa

943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAko Campusa

943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea
zabalik

Maiatzaren 9a: 042 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 9, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Elgetako ESPALOA KAFE ANTZOKIAN, maiatzak 13, 14 eta 15ean izango diren **MAGIA MOSTRARAKO** bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).

- Felix Zubia (Arrasate)
- Estela Biain (Oñati)

EUSKAL SELEKZIOAREN bideojokoa eta bufanda.

- Anabel Altuna (Bergara)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Arantzazu Isasmendi (Arrasate)
- Angel Txintxurreta (Arrasate)

Maiatzaren 16ko sariak

- **WERLISA** argazki kamera digitala.
- Maiatzak 22an, Elgetako Espaloa Kafe Antzokian izango den **ROGELIO BOTANZ** eta **ALFONSO SASTREREN** ikuskizunerako bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).



EIBAR-SPORTING

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)





Hamarrekoa

AITOR GONZALEZ LUNA | AKTOREA

"Ertzainaren trajea handi daukat, ez da nire neurrikoa eta ez dut eroso"

Oihana Elortza

1. Umetan lehena zinen eskolako antzerkian parte hartzen? Ez. Txikitik latsa handia nuen eta ez zitzaidan bat ere gustatzen antzerkia egitea. 15 urte nituenean, berriz, erabaki nuen aktore izan nahi nuela eta orduantxe joan zitzaidan latsa guztiak.

2. Zer baino hobea da aktore izatea? Lantegian zortzi ordu egitea baino hobea. Uda batean Fagorren ibili nintzen lanean, baina niretako errutina gogorregia da lantegi batean sartuta egotea.

3. Eta nolakoa da aktore lana? Ez da beste lanbide batzuk baino errazagoa, baina nik nahiago dut. Denboraldi batzuk beste batzuk baino hobek izaten dira eta horretara moldatzen jakin behar duzu, asko mugitu behar zara.

4. Zer moduz dabil Danel ertzaina Goenkalen? Danel ez dakit, baina ni oso ondo. Oso urduri hasi nintzen, oraintxe hartu dut konfiantza eta erosoago sentitzen naiz platoan. Baina Goenkale bukatu egiten da, ordea. Maia-

tzaren 11n, hurrengo eguaztanean dugu grabazioko azken eguna. Lastima.

5. Zer moduz konpontzen zara arrakastarekin? Bilbon oso ondo, ez nau inork ezagutzen eta. Orion, aldiz, sinadurak ere eskatu dizkidate eta Bergaran niri begira gelditzen da jendea.

6. Nola ikasten dituzu gidoiak? Euskaldun berria naiz eta hasieran denbora gehiago behar nuen testuak ikasteko. Koloretako margoekin azpimarratzen eta markatzen ditut pasarte batzuk eta gero ozen irakurtzen ditut.

7. Nolakoak dira Bilboko gauak? Mundialak. Gas-teiz eta Donostiakoak baino askoz hobek, niretako.

8. Zer moduz sentitzen zara ertzainaren uniforme jantzita? Arraro samar, egia esan. Gainera, handi daukat, ez da nire neurrikoa eta ez dut oso eroso.

9. Nola antolatzen duzu eguna? Denboraldi honetan lan asko dut eta hara eta hona nabil. Aurre-



IMANOL SORIANO

23 urte ditu Aitor Gonzalez Lunak. Goenkale da bere lehen tele-saila, baina antzerki lan asko egin ditu. Duela astebete inguru, adibidez, antzezlan berri bat estreinatu zuen Bilbon. Hantxe bizi da egun eta tarteka etortzen da Bergarara, jaioterrira. Suzko malabarekin jolastu, klakea dantzatu, gitarra jo edo tenisean jokatzen du astia duenean. Aspaldian, ordea, asti gutxi du.

ko asteen, adibidez, 18 ordu egin dut lo domekatik eguenera. 07:00etatik 15:00era Miramonen egoten naiz, arratsaldean antzerkiaren entseguak ditut Bilbon eta gauean hurrengo eguneko gidoiak ikasten ditut.

10. Aspertu zara Bilbotik Donostiarako bidaiekin? Askok gustatzen zait gidatzea. Nekatuta nagoenean edo logalea dudanean gasolindegia batean sartzen naiz lo egitera eta kito.



Biharamuna

Edu Mendibil

Klaxk eta txup-txup

Elkartasun tsunami batek ere ez luke Oñati aldean bizi duten samina eta tristura baretuko. Hala ere, albiste goxo bat iritsi zaigu azken egunotan handik: txokolatearen aldeko **Klaxk** elkartearen sorrera. Tableta zatitzerakoan txokolate ontza batek ateratzen duen hotsa-gatik jarri diote elkarteari Klaxk izena. Onomatopeia ederra.

Txup-txup, lapikoan egosten ari denean ateratzen duen soinu aparta. Ummm. *Cocidito madrileño* antzezlanaren izen genuen ostiralean Bergaran. Gure herrian ere sekulako arrakasta izan du, ikusle kopuruari dagokionez, behinik behin. Sarrera denak agortuta. Auditorio baten faltan (joan den mendean Udalak egin-dako promesa) eta **Novedades** itxita, Udal Pilotalekuan antzeztu zuten *Cociditoa*. Portzierto, dagoeneko pixka bat erreta, ezta?

Edozein modutan, *snif!* herrian modu barik geratu gare-lako eta *ieup!* noizean behin antzerkia ekartzeagatik. Zinearen kontuarekin herritar talde batek firma bilketari ekin dio, Udalarari zine emanaldiak antolatze-ko eskatuz. Joan den mendetik zinera joan ez diren askok ere sinatuko zuten. Betikoa, zerbait falta denean, orduan botatzen dugu faltan.

Besteak beste, ikusle kopuruak behera egin duelako itxi dute zinea. Novedades aretoko arduradunek ere beharbada ez dute behar bezala zaindu euren publiko txikia eta fidela. Bien bitartean, zinezaleok pantailan *happy end* ikusteko zain.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak

Posta-e: azabarte@goiena.com

Tel.: 943 76 92 70

